



Ongizaterako, ariketa

Gimnasia izena eman ondoren izan dituzten onurak kontatu dizkigute hiru altsasuarrek / 15

Filmaren gidoia aldatu ahal izateko helduak euskara ikastera animatu dituzte / 5

Garraio publikoaren erabilera sustatzeko abonamenduak doan edo %30eko deskontuarekin / 14

Uharte eta Arruazu arteko zubi zaharraren jabetza argitu da: Nafarroako Gobernuarena da / 7

Irurtzongo La Peluso BTT Xtremek eta Arbizuko Tritoiak denboraldia abiatu dute / 16-17

Etxarri Aranazko bi futbol taldek Goteborgeko Gothia Cup torneo famatuan parte hartu zuten / 18-19

Altsasuko lortia zabalgunea 'Ezin zailagoa' zirku jaialdiaren erdigunea izanen da bihar / 22

Sakana Itsasi euskaltegia

Euskara ikasteko bidelagun onena

EUSKARA IKASTAROAK Altsasun, Irurtzunen, Etxarri Aranatzan...
Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, beheko, ALTSASU
sakana@aeek.eus
948 468 258



DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mankomunitatea, hainbat udal eta Nafarroako Gobernua: BEKAK

aeek
euskara praktikoa

Iñaki Rubio Mendoza UHARTE ARAKIL
Despopulazio arriskuan dauden herriak sustatzeko asmoz, udan lan egiteko 12 plaza eskaini ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Espainiako Gobernuarekin egindako hitzarmen baten bidez. 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten Nafarroako hamaika herri hautatu dituzte, Uharte Arakil tarteko, hiru hilabetez bertako elkarte edota enpresatan lanean arituko. Javier Iribertegui Solak eta Anne Biurrun Lordak Historia eta Ondarea gradua ikasi dute NUPen, eta, ekimenari esker, Zamartzeko Andre Maria monasterioan aritu dira garagarri, garila eta agorrilean, Aralarko santutegiaren artxibo historikoa osatzen. Gainera, santutegiaren nondik norakoak ilustratzen dituen gidaliburua egin dute.

Zergatik erabaki zenuten Landako Campusean parte hartzea?

Anne Biurrun Lorda. Nire kasuan, ikasketak bukatzearen estutasuna izan zen erantzulea. Lan mundura igaro aurretik praktikak egitea garrantzitsua zen niretako, unibertsitatean ikasitakoarekin ez baita nahikoa izaten; nozioak praktikan jartzea ezinbestekoa da. Konexio berezi bat ere badut Aralarrekin, familiarekin askotan etorri izan bainaiz. Gainera, hainbat proiektu egin ditut Aralarren inguruan, natura ondareari loturikoak gehienak, eta beste diziplina batetik santutegia ikertzea aberasgarria izan zitekeela iruditu zitzaidan.

Javier Iribertegui Sola. Modari loturiko enpresa batean nabilen lanean, baina nire ikaskei loturiko zerbait egin nahi nuen. Unibertsitatean Landako Campusa aurkeztu ziguten, eta bi aldiz pentsatu gabe izena ematea erabaki nuen. Aukera paregabea zen, ikasitakoa praktikan jarriz dirua lortu nezakeelako. Anneren antzera ere santutegiaren inguruko hainbat lan egin nituen ikasketetan zehar, eta interesgarria iruditu zitzaidan bertan aritzea.



Hiru hilabete Zamartzen lanean eman dute Anne Biurrun Lordak eta Javier Iribertegui Solak. IÑAKI RUBIO MENDOZA

"Ikasitakoa praktikan jarri dugu Zamartzen"

ANNE BIURRUN LORDA ETA JAVIER IRIBERTEGUI SOLA IKASLEAK

Landako Campusa programaren bidez, Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako Artxiboan lanean aritu dira Javier Iribertegui Sola eta Anne Biurrun Lorda ikasleak,

Nolakoa izan zen hautaketa prozesua?

A. Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioak NUPekin batera beka batzuk atera zituen des-

populazioari aurre eginez ikasleak lan munduan murgildu zitezten. Hitzarmena Nafarroako hainbat herritako enpresa eta erakunderekin egin zuten, horien artean Deun Mikel

Goiaingeruaren Kofradiarekin. 12 plaza atera zituzten osotara, gizarte zientzietako ikasleei zuzendurikoak erdiak eta zientzietako ikasleei zuzendurikoak gainerakoak.

J. Bi plaza atera zituzten Zamartzen aritzeko, eta bertan izena eman genuen. Kofradiarekin sinatu genuen hitzarmena, hura baita santutegia kudeatzen duen organismoa; beraz, egin dugun lana kofradiarendako izan da. Mikel Garziandia Goñi santutegiko kaperauarekin hitz egin nuen, eta esan zidan nota bidez bakarrik izan nintekeela aukeratu. Ozta-ozta hartu ninduten, baina hala izan da, zorionez.

Zertan datza zuen lana?

A. Aralarko santutegiaren artxibo historikoa egin dugu. Proiektu berritzailea izan da, tokiak ez baitu inoiz halakorik izan. Mendeetan gorde diren dokumentu eta liburuak bildu ditugu, ondoren informazio hori ordenatu eta sistematizatzeko. Informazio asko dago ordea, baina ez dirudien bezainbeste. 1932an sute batek hamaika dokumentu kiskali zituen, eta egun dauden gehienak XVIII. mendetik aurrerakoak dira.

J. Hori gutxi ez, eta gidaliburu bat ere egin dugu bisitariendako, santutegiko kondairak, artea eta bitxikeriak kontatzen dituenak. Azken horrek Gorriti Goldaratzena apaizak mende hasieran egin zuena ordezkatu du. Nobedade gisa, azken urteetan Aralarren eta Zamartzen egin diren indusketak ere jasoko dituzte liburuak, hala nola, aurkitu zituzten erromesen hilobien ingurukoak eta erromatar galtzada garrantzitsu batenak. Santutegiko marfilezko kutxatilarren eta esmalte-dun erretaularen inguruko informazioa ere agertuko da bertan.

Nola sailkatu duzue informazioa? Zer erreminta erabili dituzue?

J. Lehenik eta behin, dokumentu fisiko zein digital guztiak karpetetan sailkatu ditugu. Ondoren, excel orri batean antolatu ditugu banan-banan, bakoitzari izena eta guk geuk sorturiko kode bat emanez eta artxibo mota zein den eta zein karpetatan aurkitu daitekeen zehaztuz. Hala, kodeturiko informazio hori guztia datu base batean irauli dugu, bilatzaile baten bidez nahierako



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



informazioa erraztasunez bilatu eta aurkitzeko.

A. Datu base batek izugarri errazten du ikertzaileen lana, eta gure proiektuari esker izen bat edo data bat jartzearekin nahikoa litzateke nahi den informazioa aurkitzeko. Santutegiaren inguruetako argazki zahar asko ere sartu ditugu artxiboan. Era horretan, bertakoek aise aurkitu ditzakete beren senideen argazkiak esaterako. Etorkizunean santutegia inguratzen duten herrietan elkarrizketak eta dokumentu bilketa bat egin nahiko genuke. Azken finean, inguruko biztanleek ere osatzen baitute Aralarko santutegiaren memoria.

Dokumentazioa digitalizatu duzue?

A. Oraingoz ez da gure eskumena. Gainera, ez dugu dokumentazio guztia eskaneatzeko denborarik, bekaldiak hiru hilabete baino ez baitu iraun. Dena den, espero dugu etorkizunean auke-za izatea.

J. Hala da. Interesgarria izanzen litzateke santutegiko eta ibarreko artxibo digital handi bat sortzea; guk egiten ez badugu ere, espero dut norbaitek egin ahal izatea etorkizun hurbilean. Hala ere, gure helburua da sortutako artxiboa dinamikoa izatea eta bizirik mantentzea, hau da, santutegiari buruzko orotariko informazioa sortzen den heinean, artxiboan gehitzea. Guk lehen pausoa eman dugu artxiboa handitzen joan dadin.

Nola banatu duzue lana zuen artean?

J. Txandaka aritu gara, egunaren arabera. Batak dokumentu bakoitzaren izena eta kodea idatzi ditu excelean eta besteak irakurri eta klasifikatu eta alderantziz. Elkarren artean banatuz eramangarriagoa egin dugu lana, beti berdina egitea gogaikarria izan daitekeelako. Garzandia gure tutorea da, eta egunero etortzen da egindakoa berrikustera eta aholkuak ematera. Zamartzen dauden gainerako langileak ere lagungarriak izan dira. Miguel Angel Sagaseta Ariztegi Etxarri Aranazko apaiza izandakoak eta Javier Aldabek ere asko lagundu digute.

A. Gidaliburuari dagokionez, gure interesen arabera zatitu ditugu eginbeharrak. Nik, esaterako, nahiago ditut alor artistikoari loturikoak, beraz, basilika erromanikoa, objektu historikoak eta abar azaldu ditut, santutegiaren historia oro har-



Haien lanaren bidez Zamartze "mapan kokatu" dute. IÑAKI RUBIO MENDOZA

"GUK GEUK EGINDAKO ARTXIBO BAT EGONGO DA SANTUTEGIAN; HARROTASUN HANDIA EMATEN DIGU"

Javierrek bestelako gaiekin osatu du gida. Dena den, egindakoa konpartitu dugu zuzenketak egiteko eta zalantzak argitzeko. Lanak kohesioa izan dezan.

Behin dokumentazio guztia antolatutakoan, nora eramanen dituzue artxiboak?

"BISITARIENDAKO GIDA EGIN DUGU ERE; SANTUTEGIKO ARTEA, KONDAIRAK ETA BITXIKERIAK DITU"

A. Lakuntzetxe edo Deierrri etxera igoko dituzte, Aralarko santutegira, behin eraikina konpontzen dutenean. Hiru solairu ditu eraikinak, eta bigarrenean egonen da artxiboa. XII. mendean eraiki zuen Parisko Pedro elizgizonak, eta Deun Mikel Goiaingeruaren

Kofradiari eman zion gero. Lehen solairua garilaren 3an mustu zuten, eta santutegiko museoa eraiki dute bertan. Hirugarren solairuan kofradeek bilerak egiteko aretoa egonen da.

J. Artxiboa egonen den espazioa bukatutakoan, karpeta guztiak kutxetan sartuko ditugu eta gora eramanen dituzte. Bertan sailkaturiko dokumentazio guztia apaletan joanen da, hainbat irizpideren arabera. Jende guztiarendako izatea nahi dugu, bertara joan eta edozein dokumentu kontsultatu ahal izateko. Badira, ordea, zaurgarriak diren dokumentuak, eta horiek eskatzeko identifikazio konkretu bat beharko da. Izan ere, hezetasun handia dago Zamartzen, eta dokumentu asko egoera kaskarrean daude. Zaharberritzaile bat arduratuko da artxibo horiek kudeatzeaz. Halaber, ikasketa gela bat egonen da Deierrriko artxiboan, nahi duenak dokumentuak han bertan aztertzeko. Ordenagailuak, entxufeak, mahaiak... liburutegi baten antzekoa izanen da.

Zein da Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiaren funtzioa?

J. Aralarko santutegiaren alde eta hura dinamizatzearan alde egiten du kofradiak. XI. mendean sortu zuen Pedro de Roda Iruñeko apezpikuak, eta gaur egun arte iraun du. XII. mendean, Parisko Pedrok konpondu zuen santutegia, Deierrri eraikina egin zuenak. Orduan sortu zituzten kofradiaren lehen estatutuak, eta 40.000 kofrade inguru izatera iritsi bazen ere, egun 1.400 bat besterik ez ditu.

A. Antzina ere aingeruaren anaien etxeak kudeatzen zituen kofradiak. Etxe horiek aingerua gordetzen zuen apaizari ostatu ematen zioten, aingeruaren irudia herriz herri eramaten zutenean. Nafarroako ibar guztiek dute edo izan dute horrelako bat. **Zer paper jokutzen du Zamartzek Aralarko santutegian?**

A. Zamartzeko Andre Maria monasterioa Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak kudeatzen du, beraz, Aralarko santutegiaren parte da. Areago, Zamartzeko monasterioa eraiki zuten lehenago, 1140. urtean. Maiz gutxietsi egiten du jendeak Aralarko santutegiaren arteko konparaketan, eta gure lana ere horretan datza hein batean, Zamartze mapan kokatu eta bere balioa azpimarratzea. Monasterioko

atea, esaterako, ondare historikoa da; egileak Santiago de Compostelako ate famatua egin zuen, baita Iruñeko katedraleko ate originala ere, egun existitzen ez bada ere. Nik, hain zuzen ere, ez nuen Zamartze ezagutzen eta hamaika aldiz izan naiz Aralarkoan. Ikusgarritasun handiagoa eman behar diogu.

Nolakoa da lanegun bat Zamartzen?

J. Hiru hilabeteetan monasterioan egon naiz bizitzen, Uharte Iruñeko bainaiz, beraz, nire kasuan lanaz aparte egunerokotasunaren parte diren gauzak egin izan ditut. Goizeko hamarretan hasten ginen lanean eta 12:00an etenaldi bat egin, angelusa errezatzen baitzuten ordu horretan, eta, jarraian, lanari ekiten genion 14:00ak arte. Ondoren, 15:00tik 18:00ra egoten ginen artxiboan. **A.** Lanaldia bukatutakoan Arostegira (Nafarroa) bueltatu naiz, etxera. Hurbil dagoenez joan-etorrian ibili naiz egunero. Noiz edo noiz Javierrri konpainia egiten ere gelditu naiz (barrez). Egia esan, nahiko arinak izan dira lanegunak, batez ere lana bion artean txandakatu dugulako.

Baliagarria izan da esperientzia hau?

J. Oso aberasgarria izan da. Beka bat da, eta curriculumerako oso aproposa. Gainera, oso kontent daude egin dugun lanarekin. Datorren ikasturtean eginen dut Gradu Amaierako Lana, eta Aralarko santutegiaren edota Zamartzeko monasterioaren inguruan egin nahiko nuke. Artxibozain gisa esperientzia hartzeko baliagarria izan da ere. Azken finean, guk geuk egindako artxibo bat egongo da santutegian, eta horrek harrotasun handia ematen digu. Politia izanzen litzateke kofradiarekin harremanetan jarraitzea. **A.** Oso kontent nago. 20 urterekin halako lan handia egitea harro egoteko modukoa da. Artxibo bat, gidaliburu bat... pozgarria da. Abagune paregabea izan da gure formazioa garatzeko. Soldata bat jasotzea ere mundiala da, nahiz eta ordaindu gabekoa izanen balitz ere pozik hartuko genukeen. Beste hainbat beka eskaini zizkiguten, baina gehienak turismoan jarduteko ziren, eta nik ikasitakoa praktikan jarri nahi nuen. Zamartzen historia ukitu dut nire eskuekin. Monasterioko jendea ere paregabea da. Primeran tratatu gaituzte, eta asko irakatsi digute. Oso esker oneko gaude.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Errutina

Irailean sartu gara, udaldia atzean utzita. Batzuek nekez hartuko dute; opor ondorengo estresa izanen omen dute. Baina, asko izanen dira gustura hartuko dutenak urteko errutinara itzultzea. Izan ere, atzean geldituko da garai kaotikoa, zeinetan denborak ere bere ohiko erritmoa galtzen duen, erlojua pilarik gabe gelditzean bezala, minutuak eta orduak zentzurik gabe luzaturik. Haurrak egun osoa kalean inolako kontrolik gabeko ekintzetan, araurik gabe, eta gurasoen kezkarako bide. Nerabeak etenik gabeko gaupasa eta parrandetan, gurasoen lo gabea eta kirioak dantzan. Turista petoz maskaratuta, bidaia estresagarriak, jendez lepo betetako leku itogarriak bisitatzea. Oihala zabaltzeko tokirik gabeko hondartzak, eta hondar harea belarrietako zuloetan sarturik, eguzkiaren bero zakarra. Familia arteko konpromisozko otordu eta barbakoak, koinatu moldagaitzarekin pasatu beharreko bazkalondo jasangaitzak.

Bai, askok gustura hartuko dugu errutina moldagarria itzultzea. Erlojua martxan jarriko da, eta egunak izanen du zentzua. Haurrak eta gazteak hasiko dira ikasten eta izanen dute ordutegia. Berriz ere bakea izanen da etxean. Lanera itzultzea gogor samarra izanen da jefe eta enkargatu txatxuen aginduetara, baina gustura hartuko dugu lankideen arteko kafea. Halaber, izanen dugu geure bizitza antolatzeak aukera, eta egiteko izanen ditugu makina bat jarduera, kirola egiteko, edo kultur ekintzetan.

Hala ere, errutina ere aspergarria denez, dagoeneko hasiak gara hurrengo oporraldirako falta diren egunak kontatzen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

200 euroko laguntza berria

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Zer da? 200 euroko ordainketa bakarrek dirulaguntza da, eta langabezian edota beste baten kontura lanean dauden edo autonomoak diren pertsona fisikoei zuzenduta dago, betiere diru sarrera eta patrimonioa maila baxukoa bada.

2022ko ekainaren 27an baldintza horiek betetzen dituztenak dirulaguntza jasotzeko baldintzetan egon daitezke:

- Estatu espainolean egoera legala eta benetakoa izatea eta aurreko urtetik jarraian izatea egoera hau.
- Lanean egotea eta horren ondorioz Gizarte Segurantzian

kotizatzen egotea (autonomoa zein beste batendako lanean).

- Langabezian egotekotan, Lansareko bulegoetan izena emanda egotea. (Lansareko subsidiorik kobratu ala ez kobratu).

- 2021. urtean eskatzaileak eta bizikideek izandako diru sarrerak ez dira 14.000 euroetatik pasatu behar eta patrimonioak 43.196,40 eurotan dauka muga. Bizikidetzat honako hauek hartzen dira (2022ko urtarrilaren 1eko egoera kontuan hartuta): senar-emaztea edo bikotekidea (bi urte lehenagotik); familia izatea hirugarren graduaino, hots, seme-alabak, anai-arrebak, osaba-izebak, erraina, suhiak.

Ezin dute dirulaguntza jaso.

- IMV jasotzen ari direnek
- Gizarte Segurantzatik pentsioren bat jasotzen ari

direnek (kotizaziopekoek edo kotizatu gabekoek).

Nola eta noiz eskatzen da? Zerga Administrazioako Estatu Agentziak daukan formulario elektronikoa bidez. Eskaera hau egin ahal izateko CI@ve edo Ziurtagiri elektronikoa izan behar da. Hirugarren pertsona baten bidez ere eskatu daiteke, eskumena emanda. Eskaera hauek egiteko eskatzailearen eta etxe berean bizi diren NA zenbakiak jarri behar dira eta baita bankuko zenbaki bat, eskatzailearen izenean, dirua bertan jaso ahal izateko. Gainontzeko datuak Zerga Administrazioako Estatu Agentziak aurkeztuko ditu.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero: <https://sede.agenciatributaria.gob.es>

GUTUNA

Udal azpiegiturak eta alkatearekin edukitako bilerak

TASIO MERCHAN

Askok jakingo duzuen bezala, Altsasuko udal azpiegituren pribatizazio prozesuaz jakitun, "Udal azpiegiturak sozializatu" kanpaina jarri genuen martxan GKS-k eta Gazte Asanbladak. San Pedro egunean egindako prentsaurrekotik ekimenik egin ez badugu ere, gure lana udalarekin harremanetan egotera mugatu da. Beraz, inork ez dezala pentsa kanpainen zehar lortutako babesak (800 sinaduretatik gora, besteak beste) ezerezean geratuko denik.

Aurrera jarraituko dugu, instituzio burgesen aurrean proletarioen interesak

defendatzen. Jarraian, alkatearekin eduki ditugun bilera eta harremanen berri emango dut. Berez, uztailaren 28an eduki genuen azkenengo bilera alkatearekin. Bertan, gure eskaerak ebazteko udalak "providencia de alcaldia" delako tramitea ireki zuela jakinarazi zigun. Zer da hau? Bada, hitz gutxitan esanda, gure eskaerak onartzeko ala ez onartzeko epe bat irekitzen die haietako bakoitzean konpetentzia duten organo burokratikoak.

Bertatik guretako esanguratsuen da "providencia"-ren epea irailaren 20an bukatzen dela. Hau da, GKS-k eta AGA-k egindako eskaerak erantzun bat jaso beharko dutela egun horretarako; hala zin egin zuen alkateak. Jakinda udaleko politikari eta administrariak

Altsasuko festetan lanik egiten ez dutela, festetarako erantzun bat eduki beharko genuke.

Zentzu horretan, irailaren hasieran alkatearekin bilera bat edukitzea da gure asmoa, eskaeren erantzunak zein puntutan dauden jakiteko eta irailaren 20a bitartean gure jarrera azken aldiz eta modu formalean argitzea. Jakin badakigu eskaerarako batzuk tratatzen ari direla, baina ez gara gutxirekin konformatuko. Izan ere, pobretze garai hauetan udala gai izan bada festak antolatzeak 100.000 eurotik gorako aurrekontua esleitzeko (beste urteen bikoitza), onartezina da proletarioendako oinarrizkoak diren bizi bitartekoetatik geroz eta urrunago egotea. Aurrerago emango dugu gure ondorioen berri.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
 948 564 275 (3 luzapena)
 619 821 436
 Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
 618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazo

Kolaboratzailea:

Iñaki Rubio Mendoza

Lege gordailua: NA-633/1995
 Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
 eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
 31800 Altsasu
 948 564 275
 618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
 Nafarroako Gobernuak



Errepresaliatuoen senideak Otsaportillon. ARTXIBOA

Estatu kolpeko errepresaliatuak gogoratzeko momentua

Igandean, 12:30ean, Urbasako Otsaportilloko lezearen inguruan oroimen ekitaldia egingen da

SAKANA

Ibarreko udalek sakandarrak igandeko memoria ekitaldian parte hartzera gonbidatu dituzte. Urbasako lezea gordetzen duen Jose Ramon Andaren eskulturaren ondoan egingen da 1936ko estatu kolpearen ondorioz errepresioa jasan zutenen omenezko ekitaldia. Aurtengoak *Memoria etorkizuna ere bada* leloa du. Ohi bezala, hitz hartzeak, musika, dantza, lore eskaintza eta auzatea izanen dira. Arbizuko Udalak antolatu du aurten.

Otsaportilloko ekitaldia dela eta, Arbizuko Udalak *Lur azpian. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan* erakusketa ikusgai jarri du udallexean. Erriberako eraildakoen senideek eta lagun minek bulzatu zituzten gorpuen berreskuratzeak 1978tik 1980ra bitartean. Ahalegin handia egin zuten eta erakusketak horren berri ematen du. Atzo zabaldu zuten,

eta heldu den ostegunera arte egonen da ikusgai; astegunetan, 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Aldaketa

1980az geroztik, urtero, iraileko lehen igandean antolatzen da ekitaldia. Eraildakoen senideak, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin, hasi ziren. Baina 2016an aldaketa izan zen. Aranzadi zientzia elkarteak hezurdurak hobitik atera zituen. Gainera, estatu kolpearen 80. urterrena zen. Urte hartan ekitaldia hamar udalen eta senideen artean antolatu zuten. 2016an jakinarazi zuten etorkizunean ere elkarlanean antolatuko zutela omenaldiak, eta, horregatik, 2017an ibarreko 14 udalek hitzarmena sinatu zuten. Ordutik udalak ekitaldiaren antolakuntzan txandakutzen dira.

Filmaren gidonia aldatzeko: ikasi euskara

Helduak euskara ikastera animatu dituzte 'Euskara ahora' kanpainaren bidez Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak. 'Aukera erakargarria da, bizipenak eta hainbat aukera eskaintzen ditu'

SAKANA

Eszena etxe bateko gela batean kokatzen da. Hiru lagun espiritismoa egiten ari dira. Eta espirituak kontaktatua gaztigutu du: badatoz (zonbiak). Badatoz? galdetu du han dagoenetako batak. Baina hirugarrenak "datos" ulertu du, eta beste bi protagonistek ez bezala, ez du ihes egiteko aukerarik izan. Hori da Nafarroako erakunde publikoek helduak euskara ikastera animatzeko *Euskara ahora* kanpainako iragarkiaren laburpena. Haren zabaltzearekin batera, dagoeneko, euskaltegiaren izena emateko aukera dago. Helduek euskara ikasteko eskaintza zabaldu dute: ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak edota autoikaskuntzako ikastaroak. Sakanako bertan AEK-ren bidez euskara ikasteko aukera izanen da. Informazioa nahi duenak Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakitik pasa edo 948 468 258 telefono zenbakira hots egin dezake. Gainera, matrikularen kostua aitzakia ez izateko, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak (948 464 840 edo euskara1@sakana-mank.eus) euskara ikasten duten helduendako dirulaguntzak ematen ditu, ondorioz ikasteko prozesua ia dohainik da. Bestalde, 28 toki



Gazte eta helduak euskara ikastera eta hobetzera animatzeko kanpainako irudia.

erakundek sustatutako www.elaide.eus webguneak euskara ikasleei informazioa eta baliabideak eskaintzen dizkie.

Kanpaina Nafarroako Gobernuak eta 33 tokiko erakundek sustatu dute, tartean Mank. Aurkezpenean Ultzamako zinegotzi Izaskun Anduaga Etxeberria izan zen. Berak euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenak pausoa ematera animatu zituen: "zuen pelikularen gidonia aldatu eta mundu liluragarri batean sartzeko". Gaineratu zuenez, "film horretako protagonista

izatea erraza da. Nahikoa da Nafarroan dauden euskaltegi-tara edo hizkuntza eskoletara joatea. Gidoiari bira bat eman diezaioketue akabera zoriontsua izan dezan. Abentura honetan, prozesuan lagunduko dizuen euskararen komunitate osoa izango duzue, bertan nola integratzen zareten eta bere kulturara nola sartzen zareten ikusiko duzue". Anduagak nabarmendu zuenez, komunitate erreal eta birtual oso bat dago hizkuntza praktikatzeko eta, aldi berean, ikasteko.

HEZITZAILEAK ASKO EGIN DEZAKE

Aisialdian eta hirolean euskararen erabilera sustatzeko baliabideak lantzeko tailerra

Norendako?

Aisialdiko eta kiroleko jardueretan lan egiten duten hezitzaileendako (irakasleak, kirola, gaztetxoko, Udan Euskaraz, udalekuak, jangelako langileak...).

Noiz?

Irailaren 24an, 9:30etik 14:00etara.

Non?

Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

EMAN IZENA EUSKARA ZERBITZUAN irailaren 20rako
(948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus).

Mank
s a k a n a



GUTUNA

Eusko Jaurlaritzarentzat, Nafarrak "estatukide" eta Iparraldekoak "atzeritar"

ERKUDEN BARANDIARAN GOÑI

Martxelo Otamendik jarri nau arrastoan (<https://tinyurl.com/2284v6s3>). EAEko hoteletan uztailako bisitarien kopurua eman du Eustatek (Eusko Jaurlaritzaren estatistika erakundeak) duela gutxi. EAJren esku dagoen Eustatek, Nafarroako bisitariak «estatuko beste bisitariak» eta Ipar Euskal Herrikoak «atzerriko bisitariak» bezala sailkatzen gaitu. Hortaz, EAJrentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, nafarrok eta jaendarrak edo murtziarrak jatorri berekoak gara, baina EAEtarren (espainiar) estatukide. Bidasoaz bestaldeko euskal herritarrak, ordea, lituanitarrak edo greziarrak bezain atzeritar. Harrapatzan!

Beraz, agerian uzten du, irizpide espainiar peto batez sailkatzen dituela herritarrak Eusko Jaurlaritzak, EAEz kanpoko euskal herritarrok existituko ez bagina moduan. Bost axola, era berean, bisitariok euskaldunak garen eta, are gutxiago, euskarazko zerbitzua eskaintzen zaigun edo ez. Burutik pasa ere ez.

Irakasle naizen aldetik, Jaurlaritzak EAEko ikasleen ezaugarriak buruz argitaratutako zenbait txosteni erreparatu diet gero, eta egunerokoan bizi dugunarekin alderatu. Bai, ba, hezkuntzaren eremurako ere bi jatorri nagusi esleitzen zaizkie ikasleei:

"bertakoak" eta "atzeritarrak". Pasaporteak ebazten du auzia! "Bertakoak" ez dira euskal herritarrak, espainiarrak baizik. "Atzeritarrak" pasaporte espainiarra ez duten guztiak dira. Bestela esanda:

Amezketako, Bilboko, Jerez de la frontera eta Alcantarako haurrak "bertakoak" omen dira guztiak. Nafarrok ere bai, dokumentazio espainiarra dugun neurrian. Aldiz, Urruñako, Mauleko edo Baigorriko haurrak "atzeritarrak" dira "Euskadin", Bordele, Buenos Aires, Marrakech, edo Hanburgokoak bezainbeste, espainiar dokumentaziorik eduki ezean! Negargura sartu zait. Hau da hau arduragabekeria eta noraeza, hau iparra galduta ibiltzea! Ez da bakarrik Eusko Jaurlaritzak Espainiako betaurrekoak janzen dituela, espainiar estatuaren beste edozein atal administratibok bezala. Gainera, irizpide erabat okerra da, EAEko Hezkuntza sistemak neurri handi batean euskaraz diharduen neurrian. Ume eta gaztetxoengan duen eragina penagarria izan ohi da.

Hain gaude azpiratuta, espainiar ikuspegia hain dugu xurgatuta eta barneratuta, non gauzarik oinarritukoenei ere ezin diegun bere izenetik esan? Nola izango da, ba, jatorriz bertakoa Euskal Herrian, Chiclanako edo Gandiako haur bat? Nola izango da atzeritarra Euskal Herrian, Hazparneko alaba edo Uztaritzeko semea? Erotu gara? Garai batean, nafar askok mirespenez eta itxaropenez begiratzen genien EAERI eta Eusko Jaurlaritzari. Zein oker eta engainatuta geunden!

Gauero argia pizten da bargaren erdian

Altsasuko Mendigoizaleak-en ekimenez, eta udalalen laguntzaz, argi bat pizten da gauero Basaluzeko dorrean astearteaz geroztik. Dorrea telegrafo optiko linea baten parte zen; Madril eta Irun lotzen zituen, eta 1846etik 1855era egon zen martxan

ALTSASU

Altsasuko Mendigoizaleak taldean aspaldi zuten ondare horren berri, eta mantentzearen alde lan egin dute. Azkena, astearteaz geroztik dago ikusgai. Eguzki plaka bat eta foku bat jarri dituzte dorreko teilatuan. Iluntzearekin batera pizten da argia, eta eguna argitzean itzali. "Dorreak bizia izan dezan, hor dagoela gogorarazi nahi diegu horrela altsasuarrei", azaldu dute kideek. Taldekideen nahia litzateke dorrearen barruko alde objektuz hornitzea, "garai bateko bizimodu eta haren funtzionamendua" erakusteko.

Ez da taldeak dorrearekin lotuta egin duten ekimen bakarra. Esaterako, altsasuarrak auzolana hots egin zituzten 2011ko irailaren 31n. Dorrearen inguruko sasiak eta zuhaixkak kendu zituzten 25 metroko perimetroan; horrela, dorrea Altsasuko bazter guztietatik ikusgai uzteko. Hurrengo urtean ingurua garbi mantentzeko auzolanak egin zituzten mendizale taldeko kideek.

Zaharberritzea

Kultura Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako Kultur Ondasunen Legeari segituz, Basaluzeko dorrea inbentariatutako



Basaluzeko dorrea, zaharberritze lanak aurreratuta zeudela. ARTXIBOA

ondasun izendatu zuen 2017ko azaroaren 2an. Ondoren, Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuak telegrafo optikoko dorrearen erabateko zaharberritzea erabaki zuen. Lanak 2019ko garagarri bukaeran hasi eta urte haren bukaerarako despeditu zituzten; inbertsioa 250.527,53 euroko izan zen. Altsasuko Udalak giltzak 2020ko abenduaren 15ean jaso zituen.

Basaluzeko dorrearen martxa ezagutarazteko, Altsasuko Mendigoizaleek haren maketa bat

egin zuten. Haren bidez bere funtzionamendua, eta han nola bizi ziren erakutsi zuten. Gure Etxea eraikinean ikusgai jarri zuten maketa duela urtebete. Eta, orduan, Iortia kultur guneko ezkaratzean dago. Mendizaleen azken ekimena dorrera daraman jatorrizko bidearen berreskurapena izan da. Aurtengo Bargango igoera egunean (garilak 15) seinaleztapen berria mustu zuten, partikularren soroetatik joan ordez herri lurretatik doan bidea, askoz ere igoera suabeagoa duena.

Dendetako abantailatarako giltza aurkeztu dute

Giltzaria fideltasun txartela da, dendetan deskontuak edota opariak eskuratzeko aukera ematen du

LAKUNTZA / ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Denok Bat federazio bat da eta bere baitan biltzen ditu Baztan, Bera, Doneztebe, Lesaka, Leitza, Tafalla, Errotxapeako eta Sakanako merkataritza eta zerbitzu

elkartek. Eta elkarrekin Denok Bat Giltzaria sortu dute: beraien bezeroendako fideltasun programa bat. Erreminta horren bitartez, "bezeroei zerbitzurik onena eskaini" nahi diete, abantaila eta deskontuak eskainiz.

Federazioko kideek "sistema malgu baten alde" egin dute apustu. Hala, denda bakoitzak bere abantailak eskaintzen ditu, eta lorturiko puntuak saltoki berean trukatzeko aukera eskaintzen du. Dagoeneko Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasuko 34 dendak bat egin dute. Horretaz aparte, erremintak posta elektronikoko, SMS mezu eta abarren bitartez sustapen, abantaila berezi eta deskontuei buruzko informazioa jasotzeko aukera ematen du, doan.



Emakumezkoak dendako eskaintzak begiratzen. ARTXIBOA

Zubia, haren jabetza eta jarritako babes hesiak

Nafarroako Gobernuaren Errepide Mantentze Zerbitzuak babes hesiak jarri ditu errepide zaharreko zubian. Foru administrazioak zioen ez zela berea eta ez zuela hura konponduko. Arruazuko Udalak kontrakoa uste zuen

Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

XX. mende erdialdera hasi ziren ugaritzen ibilgailuak gure errepideetan. Gero eta indartsuagoak, eta, batez ere, azkarragoak ziren ibilgailu haiek. Sakana zeharkatzen zuen errepidea herri askoren erditik pasatzen zen. Horregatik, Nafarroako Diputazioa saihebidetuek egiten hasi zen, herri guneeetatik arriskua kentzeko eta trafikoa arinago ibiltzeko. 1969ko otsailerako Arruazu, Lakuntza eta Arbizuko saihebidetuek eginda zeuden (48.531.000 pezeta, 291.677,2 euro). Baina errepidean puntu beltz bat kentzea falta zen: Uharte Arakil eta Arruazu arteko bi bihurtune. Hura kentzeko, zubi (13.133.000 pezeta aurrekontua, 78.930,92 euro) eta errepide trazadura berria egin zituzten. Errepide berria zabaltzearekin bat, zaharra bigarren mailako bide gisa gelditu zen.

Nafarroako Gobernuak, bere errepideak kudeatzeko, errepideen katalogo bat osatua du. Goian aipatutakoa bezalako gertaera bat izaten denean, bide berria katalogoan sartu eta zaharra katalogotik kanpo uzten du. Deskatalogatutako bidea, normalean, udal edo kontzejuen esku gelditzen da. "Baina Arruazuko zubiarekin ez zen hori gertatu. Nafarroako Gobernuak esaten zuen herriko kale Nagusia berritu genuenean, 2013an, hura, eta errepide zaharra zena, Uharteko gaineraino Arruazuko Udalarena zela, zubia barne", azaldu du Gorka Ovejero Ganboa alkateak.

Zubiaren egoerak bi administrazioen arteko eztabaida piztu zuen, mendebaldeko aldean harri batzuk erori baitziren, eta ondoren izan diren uholdeek egoera okertu dutelako. Udalean argi zuten errepidea eta zubia ez zirela beraienak. Arbazarrek haien ustea ustea agiritan oinarrituta, idatzia bidali zioten Nafarroako



Paseatzen eta bizikletan ibiltzen diren pertsonak pasatzen dira gehienbat zubitik.

ZUBIA KONPONTZEKO AUKERA EMAN DEZAKE HANDIK PASAKO DEN BIZIKLETA IBILBIDEAK

Gobernuari. "Lehen haiena zen errepidea, deskatalogatu zuten, baina ez diote inori eman. Eta halakorik egin ez dutenez, haiek dira jabeak", azaldu du alkateak. Eta kexa azaldu du "agiri ofizialetan gezurretan ibili" direlako, "esan dezatela ez dagoela zubia konpontzeko dirurik. Ulertuko genuke".

Lanak

Ikusirik errepidea eta zubia bereak zirela, Errepide Mantentze Zerbitzuak babes hesiak jarri zituen zubian agorrileko lehen astean. Ovejero azaldu duenez, "horrela ibilgailuak eta jendea zubi erditik joatea nahi dute. Epe motz-ertaineko konponbidea dela jakinarazi ziguten".

Aipatutako zubitik Sakana-net-en mankomunitatutako zuntz optikoaren sarea pasatzen da. Eta, etorkizunean, bertatik Sa-

kanako bizikleta ibilbidea pasako da. Sakanako Mankomunitateak hura egiteko proiektua egin du eta finantzaketa lortzeko eskaerak egin ditu. "Errepideen arduradunei horren berri eman genien. Eta jakinarazi genien Espainiatik eta Europatik bide hori egiteko dirulaguntza etor daitekeela" azaldu du alkateak. Hala balitz, mahai gainean ditzutenak bi aukera dira: zubia berritu edo oinezkoendako eta txirringulardienak bakarrik izan den eskegitako zubi bat eraiki. Konponketa lanak egiteak 280.000 euroko aurrekontua luke, eskegitako zubia egitearen aurrekontua oraindik ez dute jaso.

Bestalde, Arruazuko Udala beheko basoan azienda bazkatzeko angioa sortzen ari da. Baso garbiketa eta itxiturekin batera, aziendak ura edan ahal izateko baltsa bat egingen dute. Horretarako ura behar denez, gertu pasatzen den Urdalurko saretik hartuko du Arruazuko Udalak, Sakanako Mankomunitateak baimena eman baitio. Ur eramana egiteko Lakuntzako Udalaren baimena ere behar izan du udalak, hodia haren herri basotik pasako baita.



Kisuskilak beheko solairuan lanean hasi dira.

Eskolak hartu zituen eraikinean alokairurako 3 etxe egingen dira

Udalak Nasuvinsarekin hitzarmena sinatu du. Horren arabera, bakaikuarrek lehentasuna izanen dute

BAKAIKU

Eskola zen eraikineko lehen solairua hutsik dago gaur egun. Bakaikuarrek auzolanean hustu zuten. Udalak jakinarazi duenez, kisuskilak hara urtea despeditu aurretik sartuko dira. Haien egitekoa izanen da hiru etxebizitza eraikitzea. Alojamentu horiek 63 eta 67 metro karratu arteko azalera izanen dute. Hiru etxebizitzak babes ofizialekoak izanen dira, eta alokatu egingen dira. Hala jaso du Bakaikuko Udalak eta Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoak sinatu duten hitzarmenak. Egoitz Urritza Lazkoz alkateak jakinarazi duenez, "Nasuvinsaren eta Nafarroako Gobernuaren kontura izanen da lanen aurrekontuaren zatirik handiena. Horregatik, Nasuvinsak hiru etxebizitzak 12 bat urtez kudeatuko ditu. Hala ere, hitzarmenean baldintza bat jarri dugu: etxebizitza horiek hartzeko lehentasuna bakaikuarrek izanen dute".

Bitartean, eraikineko beheko solairuan kisuskilak agorrilaren 18az geroztik daude lanean. Eta hala segituko dute Asfi enpresako langileek azarora arte. Ordu-rako despedituta izan behar ditzutelako haur eta gazte txoko, erabilera anitzeko gela eta kumuna egiteko lanak. Lanek 220.220 euroko aurrekontua dute. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetatik udalak 125.000 euro zuzenean jasoko ditu, EH Bilduk aurkeztutako emendakin bat onartu eta gero. Gainontzekoa udalak ordainduko ditu.

Alkateak azaldu duenez, "transferentzia bidez jasoko dugun diruarekin oinarritutakoak diren lanak egingen ditugu, azarorako justifikatuta egoteko. Eta udalaren diruarekin gainontzeko lanak", azaldu du alkateak. "Horrela, ia dena despedituko genuke", esan du Urritzak. Izan ere, uda aurretik despeditu ziren eraikineko teilatua berritzeko lanak. Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean proiektua erreserban zegoen, eta beste udalen batek bere aukerari uko egin zionez, Bakaikuko Udalak 54.933,11 euroko dirulaguntza jaso zuen. Lanek 72.000 euro inguruko aurrekontua (BEZ kanpo) izan zuten. Bi lan horien aurten dagoeneko 292.200 euroko inbertsioa egin da eraikinean. Etxebizitzak egitea 230.000 euro inguru balioko du. Isolamendu lanen aurrekontua, berriz, proiektua egitean jakinen da, aurkeztutakoa estimazioa baita.

Horiek guztiak eginda, Urritzak aurreratu duenez, "beheko solairuko pareten isolamendua eta leiho berriak jartzea faltako litzateke" gaineratu du. Isolamendu lan horiek egiteko Next Generation deialdi batera aurkeztu du proiektua udalak, eta erantzunaren zain daude. Bakaikuko estrategia plana 2019an onartu zuten bakaikuarrek eta hiru lehentasun markatu zituzten: etxebizitza, eskolen eraikina eta auzolana. Azken horren ordenantza onartuta eta indarrean dago.



Gazta txapelketako epaile batzuk lanean. MIREN ARREGI OLIVENZA

Nafarroako artzainen egun berezia: Artzain Eguna

Ohiko formatuan bueltatu zen. Aralar Mendi elkarte antolatzaileak egunaren balorazio positiboa egin zuen

UHARTE ARAKIL

Pandemiaren ondoren, elkarte-kideek "indarberriturik eta ilusioz beteta" heldu zioten 54. edizioari, izan ere, "hondatu gaituen pandemiak sorturiko ondorio anitz eta ugarien ondoren" artzaintza "lagundu eta sustatzeko" ospakizuna bere ohiko formatura bueltatu zen. Eta, horrekin batera, atzera ere, jendetza gerturatu zen Uharthe Arakilera igandean. Eta han, besteak beste, gazta ohiko eran egiten ikusi zuten, edo artzainen salmahaie-tan gazta erosteko aukera izan zuten. Gainera, artisau azoka eta azoka ere izan ziren, artaldea herri erditik pasa zen, Nafarroako arkumea dastatzeko aukera izan zen eta herri bazkaria ere izan zen.

Julen Arburuak eta Irati Usandizagak Lekarozen egiten duten Infernuko gasnak Nafarroako ardi gazta txapelketa. Hirugarrenez lortu dute lehen saria. Epaimahaiak dastatu zituen gazten artean, laugarren postua lortu zuten Campionek eta Ganboak Arruazun egiten duten Albi gaztak. Gazta irabazlearen erdiagatik Iruñeko La Cuchara de Martin jatetxeak 4.700 euro ordaindu zituen.

Ardimotzaile trebeenaren saria Oronozko Andoni Eslabarendako izan zen. Eta ardiki eltze onena prestatu zuenaren saria Iruñeko Gazteluleku elkarteak irabazi zuen. Etxarriko Gure Etxea bigarren sailkatu zen, Irañetako Txapel Azpi laugarren eta Uharthe Arakilgo Aralar Mendi bosga-

rrena. Bestalde, Latxa ardiaren morfologia txapelketan, ardi heldu arpeltzen mailan, Olatzagutiko Iñaki Agirrek bigarren saria eskuratu zuen. Arratsaldean jokaturako artzain txakurren lehiaketan Antonio Alustizak bere 20. txapela jantzi zuen Tiki txakurarekin. Arruazuko Aritz Ganboaren Txistu txakurra hirugarrena izan zen.

Aralar Mendi elkarteak "ezeren truke Artzain Egunean parte hartzen duen pertsona guztiei aitortza egiteko eginahalak" egiten ditu. Horregatik, eguerdian omenaldien txanda izan zen. Lau gizonetako omendu zituzten. Joxe Irastorza Luluaga etxarriarra "urte askoan artisau erakusketan eta eta ardiki lehiaketan parte hartu" zuelako omendu zuten, Fulgenzio Oteiza Maixterrena oronoztarrak artisau azokan parte hartu izan zuelako jaso zuen aitortza. Biak hilak daudenez, "In memoriam" egin zitzaizkien omena.

Bestetik, gazta lehiaketan urtetan epaile izandako Arturo Navallas Revolek eta Miguel Iñigo Noainek egiteko horretan jai hartu dute, adinagatik. Baina igandean Uharthe Arakilera joan ziren antolakuntzaren aitortza jasotzera. Azken omendua Benjamin Urdiain sukaldari zierdiarra izan zen. Gazta lehiaketan hainbat urtez epaile, igandean azkeneko aldia izan zuen zeregin horretan. Egindako lanagatik eta "lehiaketari izen ona emateagatik" jaso zuen Aralar Mendi elkartearen aitortza.

Ospa Egunaren deialdiak zer esana eman du

Errepresioaren kontrako hitzordua bihar da. Nafarroako Gobernuak, eskuineko hainbat alderdik, zenbait erakundek eta Guardia Civilen elkarteak kontra egin dute. Ciudadanos-en zuzendaritzak Altsasuko kuartelaren ondoan ekitaldia egingen du

ALTSASU

Errepresioaren kontrako Ospa! mugimenduak 11. aldiz ospa eguna antolatu du, horrela, "errepresioaren kontrako borrokan mantenduz". Aurtengo edizioak *Poliziarik ez! Langileon aurkako errepresioa gelditu* leloa du. Ospa!-ko kideek adierazi dutenez, "poliziaren normalizazioa, presentzia eta errepresioa handitzen doazen garai hauetan, edozein gorputz polizialen beharraren kontra agertuko da Ospa! beti". Biharko egitaraua polizia ereduaren inguruko eztabaidarekin hasiko da, 12:00etan, Iortia kultur gunean. Ondoren, 14:30ean, bazkaria izanen da. 18:30ean, Foru plazatik manifestazioa abiatuko da. Eta, bukatzeko, 22:00etan, Altsasuko gaztetxean Habemus Papam eta Katarsia taldeen kontzertuak izanen dira. Horren guztiaren aurretik, aurreko ostiralean, poliziaren funtzioa aztertu zuen hitzaldia izan zen kultur gunean.

Biharko deialdiarekin bat egin du Altsasuko Isunen Kontrako Taldeak, "errepresioaren kontrako borrokan pausoak ematen jarraitzeko". Agerraldi jendetsua egin zuten hainbat altsasuarrek "Guardia Civilaren partetik sufritzen ari garen jazarpena eta errepresio erasoaldia" salatzeke. Azaldu zuten, erasoaldi horren muina "etengabeko isun politikoak" dira. "Azken bi hilabeteetan hamar isun baino gehiago" jaso dituztela salatu zuten, haiek bat haur eskoletako grebalariekin elkartasun argazkia egiteagatik izan zela jakinarazi dute. Azken bi urtetan isunetan 30.000 euro ordaindu dituztela nabarmendu zuten taldekideek. Haien iritziz, isunen arrazoiaren atzean "jatorri komun bat" dago, "instituzioetatik kanpo antolatzeke ezintasuna eta oinarritzeko askatasun politikoen ukapena. Militantzia politikoa ekidin nahi dute, militanteen biziraupen



Joan den urteko Ospa eguneko manifestazioa. ARTXIBOIA

ISUNEN KONTRAKO TALDEAK JAKINARAZI DU AZKEN BI URTETAN 30.000 EURO PAGATU DITUZTELA

materiala kolokan jarritz". Horregatik, taldetik altsasuarrei dei egin zieten antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzera. Izan ere "ekonomia errepresioak aurrean antolakuntza indartsu bat ez balu, militantzia irentsiko luke. Hori horrela ez izateko, gurekin antolatzen jarraitzeko deia egin" zieten altsasuarrei.

Erreakzioak

Ospa egunaren deialdiak hainbat erreakzio eragin ditu. Nafarroako Gobernuko bozeramaile Javier Ramirez Apestegiak adierazi zuenez, forugobernuak "Ospa Eguna bezalako ekitaldiak erabat gaitzesten ditu, Nafarroako herritarren bizikidetzaren desioen kontrakoa delako". Gaineratu zuenez, "gure babesa adierazten diegu indar polizialei, demokrazian eskubideak eta askatasunak bermatzen dituztelako".

Ospa egunaren kontra egiteko, Ciudadanos alderdiko zuzendaritzak Altsasuko Guardia Civilen ondoan ekitaldia egingen du gaur eguerdian. "Alde Hemendik lelo horrek Guardia Civilak Euskal Herritik bota nahi ditu. Gobernuarekin elkar hartuta, Estatuaren sinboloak eta presentzia desagerrarazten saiatzen dira". Horren kontra egin eta Guardia Civilari babesa adierazi nahi dio alderdiak. PPK, egunaren aurrean, Espainiako Gobernuaren gelditasunaz galdetu dio Fernando Grande Marlaska Ministroari, "Guardia Civilaren kontrako gorroto delitua baimentzen duelako". Voxek ere biharko deialdiaren kontra egin du.

Eguna debekatzea eskatu du ere, esaterako, Jucilek, Guardia Civilarendako Justiziarako Elkarte Profesionalak. Haien iritziz, "gorroto delitua" egingen da Ospa egunean, eta hori eragozteko eskaerak egin ditu Arartekoan eta Gobernu Ordezkaritzan. Unión de Guardia Civiles elkarteak kontra azaldu da. Eta Altsasuko alkateak Rosa Diezi argitu behar izan dio udalak ez duela ekimena sekula antolatu.



JUAN MANUEL MORENO

Sutea Ergako ermitan

Erga mendi gainean dagoen Trinitate ermitak su hartu zuen astelehen gauean. Antza, oinezura batek eragin zuen sua. Errepidean zebilen gidari bat jabetu zen ermitan sua zegoela eta larrialdi zerbitzuak gaztigatu zituen 05:30ean. Suhiltzaileak mendira igo ziren hura itzaltzera. Horretarako, helikopteroaren laguntza izan zuten. Hark Itsesia igerilekutik lauzpabost aldiz hartu zuen ura. Garrak itzali ondoren, suhiltzaileek kaltetutako teilatu zatia kendu zuten. 20 bat metreri eragin zien suak Iruñea aldeko ermitaren angeluan. Teilatuko zuloaz aparte, barruko pareta guztiak eta Trinitatearen irudia belztuta gelditu ziren, eta kandelak urtuta.

Teiladuran gelditutako zuloa Itzako Udalaren toldo batekin estali zuten. Ermita Aginagako parrokiarena da. Irurtzango apaiz Antonio Lopezek azaldu duenez, sutea piztu zen tokian telekomunikazio antenak daude eta, antza, halakoek tximistak erakartzen dituzte. Dirudienez, haren jabe den enpresa izanen da Ergako ermitan sortutako kalteak konponduko dituen.

Sakanako Estrategia Planari ekarpenak egiteko garaia da

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) jakinarazi du ibarreko estrategia planari herritarrek irailaren 15era arte egin diezaiotetela ekarpenak. Sakanako Plan estrategikoaren dokumentazioa kontsultatu edota ekarpenak egin nahi dutenek <https://labur.eus/hvIiw> webgunean dute horretarako aukera. SGAtik azaldu dutenez, "Sakanan bizi eta lan

egin leloari erantzunez, estrategia planaren eguneratzea bi ardatz nagusiren baitan landu da: lan mundua eta ekonomia jarduera, eta, bestetik, gizarte ikuspegi. Iraunkortasuna, digitalizazioa eta gizarte ekonomia zehar lerro gisa proposatu dira".

Gaineratu dutenez, "plana dokumentu itxia baino Sakanak sozioekonomikoa arloan jarritako helburuetara iristeko mapa da, bidean sortzen diren eremu eta erronka berrietara egokitu beharko duen dokumentu bizia".



BERIAIN SAN DONATO BERRIKUNTZA TALDEA

Mantentze lanak Beriainek

Beriain gainean, 1.492 metroko altueran, ermita dago. Han elizkizuna egiten da urtean behin: agorrilaren 7an. Igandea ez bada hurrengoan ospatzen da. Urtero, ospakizunaren aurretik, Beriain San Donato Berrikuntza Taldeko kideak mendira igo ziren eta ermita eta aterpea konpondu zuten.

Mediku faltak jarraitzen du Burunda mendebaldean

Gehienez pediatra eta bi sendagile izan dira agorrilean. Bilkurekin zerbitzu ona eskatu dute

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA
Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataformak deituta garrileko eta agorrileko astelehenean kontzentrazioak egin dira Altsasuko osasun etxearen parean. Astelehenero 80 bat pertsona elkartu izan dira. Bilkura horien bidez Nafarroako Gobernuari Altsasuko oinarriko osasun eskualdea bazter ez uzteko eta beharrezkoak diren sei medikuak ekartzeko eskatu dute. Plataformako kideek jakinarazi dutenez, profesionalen oporrak ez dira ordezkatu, eta udan, gehienez, bi mediku eta pediatra izan dira hiru herriez arduratzeko.

Udalak, herritarrak, langileak eta foru administrazioa biltzen dituen Burunda mendebaldeko Osasun Kontseilua agorrilaren 23an elkartu zen. Herritarrek astelehenean egindako aldarrikapenak entzun zituzten han Osasunbideko ordezkariak. Haien erantzuna izan zen medikurik ez dagoela. "Eta bakarren bat ezagutuz gero, jakinarazi, hots eginen diogu eta!" Plataformaren iritziz, mobilizazioekin jarraitu beharra dago, "ditugun medikuak protesten ondorioz bidali baitituzte". Horregatik, Altsasuko festen ondoren zer pauso eman aztertuko dute.

Jubilatutakoei omenaldia

Altsasuko Dendarien Elkarteak 4. Merkataritza festa ospatu zuen Foru plazan larunbat arratsaldean. Haurrendako txokoak, taberna, txotxeko sagardoa eta 700 pertsonarendako txistorra jana izan ziren ospakizunaren ardatza. Elkarteak aukera baliatu zuen jubilatutako diren bi dendari omentzeko: Eduardo Alvaro eta Juan Alonso Asensio.



kaxeta
LIBURUGINDA

Ikas material guztia dugu zure eskura!

www.kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

xapatero
taberna

Terraza freskoa eta giro itzela dugu

948 460 162 · Etxarri Aranatz

KOLABORAZIOA

Atapuerca (Burgosko toponimo nagusia), euskal toponimoa seguru asko**JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON**

"Porka" izenak ('morka' Euskaltzaindiaren Hiztegian), Sakana erdialdean gai baten multzoa adierazten du eta gai horren zatiek nolabaiteko harremana edo lotura erakusten dute. Gaztelaniako 'horca', 'sarta', 'ristra' eta 'racimo' hitzak ordezkatzen ditu: *artaporka, mahatsporka, baratxuriporka...* Etxarri Aranatzen *izporka* ere erabiltzen da, izen eta izenondo moduan, 'hitz andana' eta 'hitzontzi' adierazten duelarik kategoria bakoitzean.

OEHn modu ezberdinetan dago jaso, baina esanahi berarekin: *morka, borka* (AN-ulz, Sal, R; Lh), *porka* (G-nav, AN, B).

Eta badirudi hedapen zabalagoa izan duela izen honek, betiere toponimiari erreparatzen badiogu.

Ezaguna dugu guztiok, azken hamarkada hauetako arkeologia indusketak medio, Burgosko **Atapuerca** toponimoa. Toponimo honen etimologiari buruzko iritzia duela hamabost urte gutxi gorabehera eman zuen Xabier Kintana euskaltzainak (*Diario de Navarra*, 2007-07-30). Jose

Mari Satrustegi euskaltzain arruazuarra zenari entzun omen zion lehen aldiz hitz horrek euskal etimologia ukan zezakeela. Badirudi lehen osagaien oinarritu zuela aipatu euskal etimologia Kintana jaunak, ezen bigarrena gaztelaniako lehenaren oihartzun gisa azaltzen baitu. Honela jarraitu zuen, orduko hartan. Bere ustean, hitz horretan, "...*biki edo geminatu semantiko deitu ohi denaren kasu bat genuke, hau da, esangura bereko bi hitz, euskaraz bata, gaztelaniaz bestea, elkarrekin lotuak. Hortaz, jatorriz *Atapuerta genuke, hots ate-puerta, hitz bakarrean era bereko bi fonema gerta ez zitezten, hasierakoak eraginda, bigarren /t/-a disimilatu eta /k/ bihurtuz. Horretara, *aTa-puerTa-tik Atapuerca-ra iragan bide zen, ondoren, eskualde hartan euskara galtzean, gaztelaniazko puerco/a hitz arruntarekin herri-etimologia faltsua sortu arte*".

Nik ere uste dut Jose Mari Satrustegik intuizio handia erabili zuela, baina seguru asko toponimoaren osagaiak ezagunak eginen

zitzazkiolako. Lehena, *ate*, oso hedatua dago Euskal Herri osoan eta, bigarrena izan daitekeena, *porka* hitza, oso erabilia izan da duela gutxi arte Sakana osoan, gorago esaten nuen esanahiarekin.

Hala ere, toponimo honen osagaiak hauek badira, kasu honetan ere gaztelaniak izan du eragin zuzena bere bilakabidean, jatorria latinekoa duten beste kasu batzuetan gertatu den moduan, bokal erdiaren diptongazioa burutuz, hau da, *o > ue* bihurtu du. Hala gertatu da, esate baterako, *portam > puerta, solum > suelo, forum > fuero...* hitzen kasuan.

Diptongazio berbera aipatzen digu Salaberrik (1997, 9) -*tz(a)* atzizkiak ari dela: "egokiro azal daitekeen beste bailara izen bat euskaraz -toponimia txikia lekuko-Berroza (Berrotza?; Berrueza erdaraz) deitu izan dena dugu;..."

Eta erdiko bokalaren diptongazioaren teoria berrestera dator nik duela seiren bat urte edo ezagutu nuen "Historia documentada de ATAPUERCA" artikulua, Burgosko Unibertsitateko Luis Martínez García Erdi Aroko Historiako irakasleak argitaratua. Besteak beste, toponimoaren dokumentazioan arakatu eta gero, ondorengoak esaten ditu: "El primer documento escrito en el que aparece el nombre de Atapuerca es del año 936. Una tal Doña Fronilde, dona al Monasterio de Cardeña, entre otras, la villa de Orbaneja de Río Pico, donde dice; '...per summa serra de Adtaporka usque ad ecclesie Sancti Vincenti que est super illa cueba...' El segundo en antigüedad, del año 1068, es un privilegio otorgado por el rey Sancho II de Castilla por el que concede al obispo de Oca Don Simeón como paso previo a su traslado a Burgos en 1075, muchas iglesias y posesiones, entre otras '...et in Ataporka duas ecclesias cum suis adjacentiis'."

Eta jarraian, historian ezaguna den eta hizpide dugun

toponimoaren izena daraman gudarekin ematen dio segida, beste zenbait aipamenekin batera: "1054 la batalla de Atapuerca transcrita a través de cronistas 100 años después; la Crónica Silense, la Crónica Najerense (1.140-1.160) y los Anales Compostelanos (h. 1.140), las tres crónicas coinciden en; 'Iam autem Garsias in media valle de Athaporca (Silense Athaporka) posuerat castra...' En 1071, un individuo llamado Morelle dona al Monasterio de Cardeña unas casas '...in Atapuerca, in villa qui dicitur Quintana, cum tota sua hereditate...' (...) Sin embargo, el documento más importante está fechado en 1.138, firmado por el rey de Castilla Alfonso VII, que es el Fuero de Atapuerca, documento que se conserva en la Biblioteca de la Real Academia de Historia de Madrid. En éste sí se habla de la villa de Atapuerca (Ataporcha) y de sus vecinos."

Aztergai dudan toponimoaren grafian, bigarren osagaiaren bokala soilik edo diptongaturik ageri zaigu ikusten denez eta hortik aurrera, aipatu historialariak toponimoaren jatorriari edo esanahiari buruzko azalpen ezberdinak jaso zituen, horien aurreko bere iritzia ere bertan islatuz: "(...) Tras indicar que los especialistas en Toponimia no se ponen de acuerdo sobre el origen y sentido de los vocablos, Adtaporka/Adtaporta/Ataporcha. Refiriéndose a la opinión, a su juicio poco convincente, del catedrático de Historia del Derecho G. Martínez Díez: 'Adtaporka, como palabra compuesta de adta con sentido de hasta, y porca o puerca, hembra del jabalí, aunque resulta difícil precisar qué se quiere significar en concreto con esa expresión' (Pueblos y Alfoces).

La interpretación más razonable del conferenciante, (con J. M^a Solana, catedrático de Historia Antigua de la Universidad de Valladolid): Atapuerca de raíz preindoeuropeo: topónimo

formado por alba/alpa/alta como piedra o fortaleza y puerka o puerta como umbral o punto de observación. Nombre aplicado en principio a la sierra, de donde lo tomaría al parecer la villa. La aparición en la documentación de los siglos XVII, XVIII y XIX del término 'Tapuerca' lo considera un hecho de menor importancia."

Eta hemendik aurrera euskalarekin edo euskararekin lotura izan dezakeela ere aurrikusten du: "(...) Los primeros asentamientos tiene (sic) un carácter militar: Burgos, Quintanapalla, Arlanzón. A la sombra de sus castillos irán surgiendo las aldeas. Concretamente en el valle de Vena, las primeras aldeas serían Atapuerca y Agés, que aparece citada en el año 944. Muchos de aquellos colonos provenían de territorios vascos o navarros, dejando nombres como Alarcía, Herramel, Urrez, Urquiza, Froncea, Galarde, Zalduendo, Ochavro, Agés, Zucurruta, Ibeas, Juarros, Villabáscones..., quién sabe si Atapuerca... Todos topónimos vascos".

Lehenik Burgosko eremu horretan eraikitako zenbait bizilekuren sortzaileetako asko euskaldunak (berak euskal edo nafar lurraldeetatik etorritakoak esaten du) izan zirela zioen eta, berehala, jatorri horren lekuko diren hainbat bizileku edo herriren izenak eman zituen.

Burgosko unibertsitateko historialariak eskaintako dokumentazioa aztertuz, horietako zaharrenean mendiari egiten dio erreferentzia toponimoak eta ondorengo bietan harana eta toponimoa besterik gabe ageri dira.

Eremu zabala adierazten du, orduan, sarrera edo ikuspegi anitz izateko modukoa. Beraz, amaitzeko, *ate* eta *porka* izanen balira toponimoaren osagaiak, *ate* edo *sarrera* multzoa adieraziko luke. Ez al du zentzurik?

DUELA 25 URTE...**Ziordiko dantza taldea**

Ziordiko festetan jendaurrean estreinakoz dantzatu zuen herriko dantza taldeak, Ama Birjinaren eguneko mezaren ondoren. Bederatzi umek eta 5 gaztetxok osatzen zuten taldea, eta haietatik soilik bi ziren mutikoak. Guztien irakasle Goizeder Casas zegoen, Aintzindari dantza taldeko kide ziordiarra. Hamalaukotea apirilean hasi zen dantza ikasten. Hamabostean behin ordu eta erdiko entseguak egin zituzten.

0 km
SAKANAKO
GIDA

AISIALDIA (5)

ANIMALIAK (2)

DENDAK (59)

ELKARTEAK (1)

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK (1)

ERAIKUNTZA GREMIOAK (1)

ERROTULOAK (1)

ESNEKIAK (5)

ESTETIKA (25)

ETXEA, DEKORAZIOA, ALTZARIAK (8)

GARAPEN AGENTZIAK (1)

GASOIL BANATZAILEAK (1)

GASOLINDEGIAK (1)

GIZARTE ERAGILEAK (2)

GREMIOAK (1)

HEZKUNTZA (28)

INFORMATIKA (1)

INPRIMATEGIAK, PAPERTEGIAK (1)

JAKIAK (2)

JATETXEA, TABERNAK, OSTATUAK (21)

KOMUNIKABIDEAK (2)

LANTEGIAK (2)

LOREZAINZA (1)

MOTORRA (21)

NEKAZARITZA, BASOGINTZA (1)

OSASUNA (20)

PROFESIONALAK (15)

ZERBITZU PUBLIKOAK (12)

ZERBITZUAK (19)

260
KLIK BAKARREAN

<https://guaixe.eus/gida/>

FESTAK

ETXEBERRI FESTAK

IRAILAK 2 Ostirala

10:00 Hamarretakoa.
14:00 Txupinazoa.
14:30 Paella herrikoa. Jarraian, bertsolariak.
17:15 Egin Kantu Etxeberri.
18:00 Mus txapelketa.
19:30 *Korri, harrapatzen zaitudala!* Etxeberriko txistulariek eta kilikiek alaituta.
20:00 Dantzaldia DJ Oixanirekin.
21:00 Pintxopote eta pauso bat atzera. Hirugierra, txistorra, tortilla eta postreen dastaketa.
22:30 Dantzaldia DJ Oixanirekin.
03:30 Aulkien jolasa.

IRAILAK 3 Larunbata

11:00 Etxez etxeko erronda, Irurtzungo trikitilariak alaituta.
17:30 Herri kirolak.
19:30 *Korri, harrapatzen zaitudala!* Etxeberriko txistulariek eta kilikiek alaituta.
20:00 Dantzaldia DJ Iñakirekin.
22:00 Herri afaria.
00:30 Dantzaldia DJ Iñakirekin.
04:00 Aulkien jolasa.

IRAILAK 4 Igandea

11:30 Pilota partiduak.
14:30 Herri bakaria eta gazta jokoa. Jarraian, bazkalondoa Bizirekin.
19:30 *Korri, harrapatzen zaitudala!* Etxeberriko txistulariek eta kilikiek alaituta.
20:00 Txokolatada.
20:15 Urdaiazpiko, gazta eta kamiseten zozketa.
21:00 Gaixoa ni.

IRAILAK 8 Osteguna

12:00 Meza.
13:00 Otamena.

IHABAR FESTAK

IRAILAK 2 Ostirala

18:00 Txupinazoa eta kilikiak.
18:30 Frontenis txapelketako finala.
20:00-22:00/00:30-04:30 Dantzaldia Sukar taldearekin.
22:00 Herri afaria.
04:30 Ingurutxoa eta tapia gaineko jota.

IRAILAK 3 Larunbata

13:00 Jauziak eta plaza dantzak. Otamena.



LAKUNTZA Lakuntzako plazan giro ederra izan da egunotan.

14:30 Kaldereteak.
18:00 Kalejira gudi musikatuarekin.
00:30-04:30 Dantzaldia Triкитеens taldearekin.

IRAILAK 4 Igandea

11:30 Doneztebe eguneko meza.
13:00 Duo Jalisko taldearen emanaldia. Otamena.
14:30 Ingurutxoa.
15:00 Herri argazkia.

17:00 Mus txapelketa.
18:30 Jolas tradizionalak.
20:00-23:00 Dantzaldia Modestorekin.
22:00 Zezensukoa. Parrillada.
23:00 Antzerkia: Kinki Games. Ondoren, gaupasa elkartean.

IRAILAK 5 Astelehena

12:00 Haurrendako jolasak.
13:00 Otamena.
14:30 Paellada eta bingoa.

16:00-20:00 Puzgarriak, txokolatea eta mozorroak.
20:30 Musika ikuskizuna.
21:30 Parrillada. Ondoren, gaupasa elkartean.

ZIORDIA FESTAK

IRAILAK 7 Asteazkena

15:00 Herri bazkaria, gaztetxeak antolatuta.

19:00 Txupinazoa, Eztanda Txarangarekin.
19:15 2021ean jaiotako haurrei zapia jartzea eta herriko helduei omenaldia.
19:15 Play back: herriko gazteek prestatutako koreografiekin dantzaldia.
21:30 Herri afaria.
23:30-03:30 DJ Txumarirekin dantzaldia.

ALTSASU Irailaren 1etik 4ra, Garagardo azoka bueltan da

Pandemiagatik bi urtez ospatu gabe egon ondoren, alemaniako zaporeak Baratzeko biden jartzen duten karpara itzuliko dira. Garagardo azoka 1etik 4ra arte izanen da, Kukurreka elkarteak antolatuta, 19:00etatik 00:00etara. Karpan hainbat garagardo dastatzeko aukera izanen da, baita garagardotegi menua eta jakiak dastatzeko aukera ere.

Garagardo azoka festen aurreko asteke ekimenetako bat da. Duela bi hamarkada inguru ospatzen hasi ziren, hasiera batean Altsasuko Peñek eta ondoren Zubiondo eta Kukurreka elkarteek, eta dagoeneko ohiturazkoa bihurtu da.



Altsasuko garagardo azoka. ARTXIBOA



ARGAZKILARIAXXX

LAKUNTZA 2021eko lakuntzarrek zapia jaso zuten festen hasieran.

IRAILAK 8 Osteguna

ADINDUEN EGUNA

09:00 Aurora.

12:00 Meza.

13:00 Adinduen luntxa, udaletxearen aurrean.

13:30-15:00 Kazahueres

Mariatxiak taldearen emanaldia.

18:00-20:00 Pilota eta pala partiduak, Sakanako eskolaren eskutik.

20:00 Bonba japoniarrak. Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.

20:00-21:30 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-03:30 Trikidantz taldearekin dantzaldia.



IRAILAK 9 Ostirala

HAURREN EGUNA

12:00-14:00 Haurrendako jolasparkea.

14:30 Haurren bazkaria, elkartean.

16:00-19:00 Haurrendako jolasparkea.

18:30-19:30 *Magiklown* haurrendako ikuskizuna.

20:00 Bonba japoniarrak. Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.

20:30-21:30 Dantzarima

dantza konpainiaren Akelarrearen sua berpizten ikuskizuna, Txoperan.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00 Kontzertuak: The Lio eta Nafarroa 1512 taldeak.



IRAÑETA Festa parte hartzaileak izan ziren Irañetan.



Mank
SAKANAKO



Irurtzundarrak Iruñerako autobusa hartzen. ARTXIBOA

Garraio publikorako deskontuak

La Burundesaren abonamenduak %30 merkeago dira atzotik urte bukaera arte. Bestalde, Renferen aldierietako eta distantzia ertaineko tren abonamenduak doakoak izanen dira, eta distantzia ertaineko Avant abonamenduen erdia ordaindu beharko da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Energiaren eta erregaien prezioen igoera etengabearen ezohiko egoera bat bizi du Europak. Tes-

tinguru horretan Espainiako Gobernuak iragarri zuen berak kudeatzen dituen garraio bide publikoak (Renfe) doan edo erdi

prezioan erabiltzeko aukera izanen zela irailaren 1etik urtea despeditu arte. Bestalde, tokiko erakundeek edo autonomia er-

kidegoen eskumena garraio bideek, berriz, %30eko deskontuak ezarri dituzte. Txartelaren prezioan dagoen aldea Espainiako Gobernuak ordainduko du.

Neurri horien helburua da garraio publiko kolektiboa sustatzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, "energia mendekotasuna eta karbono azterna gutxitzen laguntzeko". Aldi berean, ekimenak garraio publiko kolektiboa "eguneroko mugikortasuna bermatzeko, garraio bide seguru, fidagarri, eroso, ekonomiko eta jasangarria" dela erakutsi nahi du.

Autobusak eta trenak

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, sakandarrek La Burundesa enpresaren autobus zerbitzuen bonuen zerbitzuan %30eko murrizketa eskuratu dezakete. Prezioaren gaineko hobia atzo sartu zen indarrean eta urte bukaera arte indarrean izanen da. Hala ere, erositako abonamenduko bidaia 2023ko ilbeltzaren 31ra arte egin ahaliko dira. Enpresatik azaldu dutenez, garai bateko abonamendu fisikoaren ordez bonu birtualak dira saltzen ari direnak, telefono mugikorren eramateko modukoak. La Burundesa-tik zehaztu dutenez, familia anitzeko karneta dutenek %30eko deskontua eta familia anitza izateagatik dagokien deskontua batzeko aukera izanen dute. Bestalde, Iruñerriko autobus zerbitzuko erabiltzaileek garraio-txartelean hobia izanen dute.

Trenetarako dagokien, atzotik urte bukaera arte, Renferen aldiriko trenetan (Goierriko herrietako linea, esaterako) eta distantzia ertainekoetan (Hego Euskal Herriko lau hiriburuak beraien artean eta Mirandarekin, Zaragozarekin eta Santanderrekin lotzen dituzten lineak) aplikatuko da neurria. Bi abonak doakoak dira, baina lehenengoaren kasuan 10 euroko bermea jarri behar da eta bigarrenean 20 eurokoa. Bermeak automatikoki bueltatuko dira baldin eta lau hilabeteetan 16 bidaia baino gehiago egiten badira. Bestetik, distantzia ertaineko abiadura handiko trenen abonatu guztien prezioan % 50eko murrizketa dago. Baina erosteko alde arretetik izena eman behar da www.renfe.com webgunean edo Renferen aplikazioetan.

Alfredo Alvaro Igoa

ALTSASU
Josefina Arregi klinikak eta Altsasuko Udalak sustatutako *Altsasu mugitzen da* programan parte hartu dute Carmen eta Francisca Guerrero Ruedak eta Venancio Amillano Urdiainek. Venancio eta Francisca hasieratik daude programan, duela hiru urtetik. Izena eman aurretik Venancio igerian aritzen zen, paseatzen zen eta etxean egunero zintan ordubetez ibiltzen zen. Gainera, etxean hainbat gauza egiten ditu. "Kiroldagiko neskak esan zidan: orain ikastaro hau egiten da. Igerilekua baino onuragarriagoa izanen da zuretako". Izena eman zuen. "Egia zen, a zer aldea!" *Altsasu mugitzen da* programan parte hartu ondoren "gimnasiakoa egin eta zintan ibiltzen naiz. Hobekuntza ikaragarria izan da".

Franciscak oinetan eta belanetan mina zuen. Alabak "gimnasia" izena ematea gomendatu zion, "ona" zelako, "eta poz-ozik nago. Lehen, oinazeengatik, ezin nuen ezta ibili ere! Oinak lurrean jartzean, a zer minak!" Ondorioz, ez zuen inolako ariketa fisikorik egiten, etxeko zereginak ez baziren. "Orain ez dut maratoni bate-rako adina korrika egiten, baina askoz hobeto ibiltzen naiz". Igo-gailurik gabe, bigarren pisuan bizi da. Lehen beldurrez ibiltzen zen; orain, majo. Horregatik, bere ingurukoei saioen onuraren berri ematen hasi zen.

Carmenek azaldu duenez, "artrosia dut eta agerraldi izugarriak izaten ditut. Gaizki pasatzen dut". Etxean, logetara igotzeko, batzuetan lau hanketan igo izan zela aitortu du. "Ezin nuen. Eta inori ez nion ezer sekula esaten". Egoera hartan ez zuen ariketa bat bera egiten, etxeko lanak, eta kitto. Ahizpak aholkatu zion "gimnasiara" joateko, "beharbada on egiten dizu". Eta Francisca Carmenen izena eman zuen. "Egia da, on egin dit. Aldea izugarria da. Poz-ozik nago". Bere buruan sumatu duen onurengatik adineko jendea ariketa fisikoko programetan izena ematera animatu du.

Programaren ondorioz, bi ahizpek autonomia irabazi dute. "Lehen ez nintzen paseatzera joaten, ezin nuelako pauso bat bera eman", ziurtatu du Francisca. Gimnasiak "Donostia erdia ibiltzeko" aukera eman dio, "eta oinek ez didate minik ematen; lehen, ordea, bai". Carmenek

Burundesaren garraio txartelen deskontuak

Ibilbidea	Bidaia kopurua	Prezioa	Deskontuarekin
Uharte Arakil - Iruñea	20	67	46,9
Gazte garraio txartela	20	54	37,8
Lakuntza - Iruñea	20	77	53,9
Gazte garraio txartela	20	62	43,4
Arbizu - Iruñea	20	81	56,7
Gazte garraio txartela	20	65	45,5
Etxarri Aranatz - Iruñea	20	87	60,9
Gazte garraio txartela	20	70	49
Urdiain - Iruñea	20	91	63,7
Gazte garraio txartela	20	73	51,1
Altsasu - Iruñea	20	103	72,1
Gazte garraio txartela	20	82	57,4
Altsasu - Gasteiz	20	89	62,3
Gazte garraio txartela	20	70	49
Olatzagutia - Iruñea	20	109	76,3
Gazte garraio txartela	20	87	60,9
Iruñea - Gasteiz	20	192	134,4
Gazte garraio txartela	20	154	107,8
Iruñea - Ubarmin	24	21,6	15,12



Carmen, Venancio eta Francisca arin asko ibiltzen dira.

Ariketaren onurekin 'pozik'

Adinekoen ongizatea eta osasuna hobetzea. Helburu hori duten makina bat gimnasia ikastaro eskainiko dute ikasturte berrirako ibarreko udalek. 'Altsasu mugitzen da' programako hiru parte hartzailek haien esperientziaren berri eman dute

azaldu duenez, "etxeko eskailerak igo eta jaistean izugarri nekatzen nintzen, ezin nuen. Gainera, belau bat asko puztu zitzaidan. Medikuek esan zidan artrosia zela. Hiru infiltrazio egin zizkidaten. Ezin zuten gehiago egin. Orain ezkerrean eragiten dit, eta agerraldia dagoenean gaizki pasatzen dut". Botikak hartzen ditu, "baina gimnasiara noanetik oso ongi nago, eskailerak igo eta jaisten ez naiz nekatzen. Jende larri askori esan diot izena emateko, izugarri ona dela". Hobe sentitzean "beste poz bat duzu", ziurtatu dute hirurek. "Ezin ibili egotetik, mantso eta gaizki ibiltzetik, ongi ibiltzera pasatzen zara", argitu du Venanciok.

Aurreikuspenak

Venancio aurreneko egunean "hobetzeko" asmoz joan zen, "kiroldegikoak hori esan zidalako.

Zeren baldarrago zabiltzanean, hobetzeko edozer bilatzen duzu". Begiraleari lehendabiziko saioa despeditu ondoren zera esan zion: "etxera alaiago joaten naiz. Eta poztu zen". Beso bat ezin zuen asko jaso, eta, esaterako, txaketa jartzeko zailtasuna zen hori. Jada ez da horrela. Francisca lehen egunean "haserre" joan zen, "gimnasia sekula egin ez nuelako, eta alabak sartu ninduelako. Baina joan izanaz eta segitzeaz poz-oz poztu nago". Lehen egunean "pozik" joan zen Carmen, ahizpak onurak besterik aipatu ez baitzizkion.

"EZIN IBILI EGOTETIK, MANTSO ETA GAIZKI IBILTZETIK, ONGI IBILTZERA PASATZEN ZARA"

Gaztetxoko ondoko gimnasioan egiten dute ariketa, astelehen eta asteazkenetan, 90 minutuko saioak dira, "konturatu gabe pasatzen da", ziurtatu du Venanciok. "Azken finean, gorputz mugimenduak lantzen ditugu; besoak, hankak eta soina", azaldu du Venanciok. "Gihar guztiak mugitzen ditugu, eta erreflexuak lantzen ditugu", berretsi du Franciscak, "ondoren ez dugu giharretako minik". Begiralea, Ander Galarza, "bikaina da. Gu guztioz asko arduratzen da. Azalpenak oso ongi ematen ditu. Niri errieta gutxi egin dit. Batzuetan gauzak zuzendu dizkit, besterik ez. Mutilarekin poz-oz poztu nago", nabarmendu Carmenek.

Programak 24 plaza ditu eta bi txandatan banatzen dira. Hasieran 21 emakumezko eta 3 gizonetzko zeuden, baina bi gizonetzko utzi zuten eta Venancio izan da jarraitu duen bakarra. Emaku-

mezkoek izena gehiago zergatik ematen duten eta gizonetzkoek zergatik ez galdetuta, "ez dakit, gizonetzkoek pentsatuko dute: ni ongi nago. Baina, ez dakit", esan du Venanciok. Carmenek ustez, "lagunak kafea hartzera elkartzen garenez, han esaten dugu zein gustura joaten garen gimnasiara eta zein onuragarri zaigun. Horregatik izan liteke?"

Garagarrilean despeditu zuten ikasturtea eta ordutik ez dira gelditu. "Nik etxean ariketak egiten segitu dut. Baina ez da gauza bera, han 1,5 kiloko pisuak ditugu, eta etxean ez dugu halakorik. Baina baloia eta puxika bai eta haiekin ariketak egiten ditut", azaldu du Carmenek. "Opor" garaian "betiko martxarekin" segitu du Venanciok. Eta Francisca "Donostian barna asko ibili" da.

Beste pauso bat

Josefina Arregi klinika psikogeriatrico medikuak bitan izan dituzte bisitan ikasturtean zehar. Eta bukaeran jubilatuen elkar-terea deitu zituzten, eta bi adituren aurrean denetariko probak egin zituzten. "Guztia apuntatzen zuten". Hirurak gaingitu zituzten. "Ez ziguten gimnasia begirale diplomarik eman", esan du umoretsu Franciscak. Hiruak ikasturte honetan kiroldegian ariko dira. Sara Salazar Romo Altsasuko Udaleko kirol teknikariak azaldu duenez, "programaren jarraipena da. Gauza bera egingen da: indarra eta mugikortasuna landu. Baina pixka bat gehiago egingen dute". Izena emandakoek festen ondoren hasiko dira kiroldegian ariketa fisikoa egiten. Bitartean haiek utzitako tokiak betetzeko hiru ezagunek dagoeneko izena eman dutela jakinarazi du Franciscak.

Haien eskarmentua kontuan izanik, izena emateko zalantza dutenei "animatzeko eta joateko" aholkatu dio Carmenek, "asko hobetzen baita". Venanciok aitortu duenez, "egun bakarrean ez da aldaketarik nabaritzen. Hasieran zerbait nabari duzu. Pixka bat itxaron, hasieran kostatzen delako, baina denbora

"GIMNASIAN GIHAR GUZTIAK MUGITZEN DITUGU, ETA ERREFLEXUAK LANTZEN DITUGU"

Izen ematea

Ariketa fisikoaren bidez autonomia sustatzeko eta mendetasuna prebenitzeko programa da *Altsasu mugitzen da*. Ariketak Josefina Arregi klinikako adituek gidatzen dituzte. Programa 70 urte baino gehiago dituztenei zuzenduta dago. Saioak irailaren 19tik abenduaren 21era arte izanen dira, astelehen eta asteazkenetan. Bi talde izanen dira: 10:00etatik 11:15era eta 11:30etik 12:45era. Izena ematen dutenen hasierako balorazioa klinikako profesionalak egingen dute irailaren 7an eta 12an.

Ikasturteko berritasuna ur terapia da. Uraren propietateak eta tratamendurako teknika eta esku hartze espezifikoak konbinatzen ditu helburu terapeutikoa lortzeko, beti ere, autonomia sustatzeko eta mendetasuna prebenitzeko. Klinikako adituek izena eman dutenen hasierako balorazioa irailaren 8an eta 12an egingen dute. Saioak irailaren 19tik abenduaren 23ra arte izanen dira, astelehen eta ostiraletan, 12:15etik 13:00etara, Zelandiko igerilekuan. Zortzi plaza daude.

Izen ematea irailaren 10era arte dago zabalik. Horretarako, honako telefonoetako batera hots egin daiteke: Altsasuko Udaleko 948 012 012 edo 948 468 343 telefonoetara hots egin, bestela, Josefina Arregi klinikara 948 563 850 edota Oinarritzko Gizarte Zerbitzura 948 467 662. Matrikula norberaren errentaren arabera ordaindu beharko da.

pasatzen da eta askoz hobeto zaude". Franciscaren iritziz, "gimnasia izena ematea egin daitekeen gauzarik onena da. Nik ez nuen batere gogoko, baina, ondoren, egunerokoan asko laguntzen du".

La Peluso Xtremek zapore ona utzi du

BTT 200 txirrindularik eman zuten izena Irurtzun Taldeak larunbatean antolatutako proba ez lehiakorrean. Bikerrak oso gustura aritu zirela, ibilbideetako aldaketek harrera bikaina izan zutela eta ez zela inolako arazorik izan nabarmendu dute

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN
Larunbatean gozatu ederra hartu zuten Irurtzun Taldeak antolatutako La Peluso Xtreme BTT proba ez lehiakorrean parte hartu zuten 200 bikerrek. Irurtzongo plaza abiapuntu eta helmuga zutela, bi ibilbide zituzten aukeran txirrindulariek: luzea (60 km eta 2.000 m desnibel +), joan zen urteko ibilbide bera, eta ibilbide motza (38 km eta 1.101 m desnibel +). Ibilbidea Plazaolako Bide Berdeko zenbait eremutan sartu zen, jaitsiera ikusgarriak zituen, xenda ederrak, eta Trinitatea eta Ergako mendia bezalako igoera gogorrak. Bi aldaketa nagusi izan zituen: Muskizeko jaitsieraren ordez, Errege-Abelbide bidetik jaitsi zen proba, eta aldaketa berdina egin zuten Ziako jaitsieran.

Antolakuntza, kontentu

"Oso pozik gaude. Txirrindulariak gustura ibili ziren, ez zen inolako arazorik ez istripurik egon eta ibilbidean egindako aldaketak oso ongi hartu zituzten. Beraz, balorazioa oso ona da" nabarmendu du Irurtzun Taldeko Santi Moreno Morenok. Bikerren artean izen ezagunak zeuden, Patxi Cia, esaterako. Coonor Saltoki taldeko Estibaliz Sagardoy ezin izan zuen aritu, munduko txapelketa prestatzen ari delako.

La Peluso Xtreme proba ez lehiakorra da, baina txirrindularien denbora hartzen du antolakuntzak, "eskatzen digutelako. Guk ez dugu sailkapena saritzen, baina txirrindulariek egin duten denbora jakitea gustuko dute" aipatu du antolatzailerak. Denborak La Peluso webgunean daude ikusgai.

Partaidetzaz

Joan zen urtearekin alderatuta, partaidetza jaitsi egin da. Joan zen urtean, lehen edizioan, 350 izena emate inguru izan ziren



La Peluso Xtreme txoko bikainetatik pasa zen. MIREN ARREGI



Xendak, maldak, mendia... denetatik izan zuen probak. LA PELUSO

eta aurten 200. "Asteburuan lau BTT proba antolatuta zeuden Nafarroan, horiek proba asko dira eta, jakina, partaidetzan eragina izan du" azaldu du Mo-

"IBILBIDEAN EGINDAKO ALDAKETEK HARRERA BIKAINA IZAN DUTE. GUSTURA IBILI DIRA" SANTI MORENO

renok. "Gurea bezalako proba baterako eguraldi lehorra izatea beharrezkoa da, lohi askorekin ezinezkoa litzatekeelako. Beraz, data hauetan moldatu beharra dugu" gaineratu du.

Datorren urtean La Peluso Xtreme BTT proba ez lehiakorrekin aurrera jarraituko dute. "Hirurekin jarraituko dugu: La Peluso zikloturista martxa, taldeen arteko erlojupekoa eta BTT proba" ziurtatu du Morenok.



Ezkurdiak Zabaletarekin irabazi zuen Gasteizen. Donostiako Saria nahi du orain.

Udako torneoetan denetatik izan dute gure pilotariek

PILOTA Ezkurdia-Mariezkurrenak Donostiako Hiria Torneoko finala jokatuko dute Irribarria-Albisuren kontra

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Herrietako festak oraindik ez dira despeditu eta udako torneoetan murgilduta jarraitzen dute pilotariek. Joseba Ezkurdiak ongi ekin zion udari, Sanferminetako Lau eta Erdia irabazi eta gero, eta hura bukatuta Gasteizko Andra Mari Zuriaren Torneoa irabazi zuen Jose Javier Zabaletarekin batera. Zabaletak torneooko pilotari onenaren saria jaso zuen, ikusgarri aritu baitzen.

Zabaletak, ordea, ezin izan zuen Bilboko Aste Nagusiko Torneoko saria jaso, tanto bakarraren-gatik. Kasu honetan Elezkanorekin osatu zuen bikoa, baina Lasoren eta Mariezkurrena II. aren kontra jokatutako final borrokatu eta estuak ihes egin zien, 21 eta 22 galduta. Bestalde, Bilboko Aste Nagusian jokatutako IX. Bizkaia Torneoko finalean aritu zen Martija, Gorbeia taldearekin. Lau eta erdian, buruz

buru eta binaka jokatu zen txapelketa, eta finalean Anboto taldea gailendu zitzaion Martijaren Gorbeia taldeari.

Gaur, ostirala, Donostia Hiriko Torneorearen finala jokatuko da Atano III.ean. Ezkurdiak eta Mariezkurrenak Irribarria eta Albisu izango dituzte aurkari, eta partida gogor eta lehiatua aurreikusten da.

Altsasuko Otadia torneo, abian

Altsasuko Kirol Elkarrekin eta Pilotajaukuk antolatutako 51. Otadiako Kristo Deuna Pilota Torneoa larunbatean hasiko da, 22:00etan, Burunda pilotalekuan. Lanza-Arrastiak Bertiz-Vicenterekin kontra jokatutako partida misto batekin hasiko da jaialdia, eta ondoren torneooko elite mailako lehen finalerdia jokatuko dute Fernandez-Loza errioxarrekin Irribarria gipuzkoarrenekin eta Lazkoz nafarraren kontra.

Ion Cerviñok Europako Txapelketa du jokoan

ARETO FUTBOLA Igandean, irailaren 4an hasiko da 19 urtez azpiko Europako Areto Futbol Txapelketa, Jaenen. Espainiako selekzioarekin lehiatuko da Xota taldeko Ion Cerviño Pueyo. Gazte irurtzundarrak azaldu du "oso pozik" dagoela hautatzailearen zerrendan sartu delako, eta txapelketan ahalik eta lan onena egiteko "oso gogotsu" dagoela.



Ion Cerviño, eskuinean. XOTA



Gomez Lakuntza Sarian. MARTIN EARLY

Kadeteen Challengea, Burundako Iker Gomezendako

TXIRRINDULARITZA

Astearteko Lakuntza Sariak Challengea erabaki zuen. Gomez, erregularrena

Asteartean Lakuntza Saria jokatuzen, Nafarroako Kirol Jokoen Kadeteen Challengea erabakitzen zuen azken proba. Lasterketa Purito aldeko Adria Pericasek irabazi zuen, baina Burunda-Queesos Albeniz taldeko Iker Gomez laugarren sailkatu zen, eta altsasuarrak Challengea irabaztea lortu zuen, bere taldekide Ekain Imazen aurretik, denboraldian erregularrena izan dela erakutsiz. Sailkapen orokorrean, mendikoan eta tartekako helmugetan gailendu da Gomez, eta bere taldea, Burunda, izan da Challengeko talderik onena.

Juniorren Itaroa Challengean Sakana Group-Aralarko Mikel Uncilla dago buruan, eta afizionatuen Itaroa Challengean bigarren Ailetz Lasa (Laboral Kutxa) da. Lasa afizionatuen mailako Nafarroako 23 urtez azpiko txapelduna da, uztailearen 30ean Villatuertako proban lehen nafarra izan eta gero.

Uxue Juanez

Uztailean Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Valladoliden, eta haurren mailan Burunda klubeko Uxue Juanezek egindakolana ez genuen aipatu. Altsasuarra 40. helmugaratu zen, laugarren nafarra eta lehen sakandarra.



Xabier Gonzalez, helmugara heltzen, txalo artean. MIREN ARREGI

Arbizuko ekokanpinetik Beriainera buelta latza

MENDI LASTERKETAK Xabier Lete eta Sara Peña izan ziren azkarrenak igandean Arbizuko ekokanpinean jokatutako Tritoiena mendi lasterketan. Beroak berez gogorra den proba gehiago zaildu zuen. Ioseba Iza arbizuarra izan zen lehen sakandarra

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Arbizuko Ekokanpinean beti egoten da mugimendua, baina ohiko martxari igandean jokatutako Tritoiena mendi lasterketak sortu zuen zalaparta gehitu zitzaion. Lasterketa Arbizuko ekokanpinak antolatu zuen, Dantzaleku Sakana Atletismo klubaren laguntzarekin eta zenbait entitateren babesarekin.

Bero

Beroak berez gogorra den lasterketa are gehiago zaildu zuen, eta hori korrikalariek egindako denboretan nabaritu zen, aurreko edizioetakoak baina zertxobait luzeagoak izan baitziren. Hala ere, lasterkariak ez ziren kikildu, eta 80k baino gehiagok hartu zuten irteera. 20,6 kilometro eta 1.053 metroko desnibel positiboa duen lasterketa ederra zuten aurretik, Beriain ardatz duena. Arbizuko ekokanpinaren perimetroari buelta bat eman eta gero, Leziza ubeldea gurutzatu eta Unanuko dermiora sartu zen

proba, Ondatzera. Unanura jaitsi, eta Beriainera igo eta gero, korrikalariek Uharte Arakilgo portutik ekin zioten jaitsierari, portu erdian Unanuko eremu aldera egin eta Ondatz gainetik Arbizun sartzeko. Hortik, Arbizuko ekokanpinera jo zuten zuzenean.

Irabazleak, maisu

Beriaingo buelta egin eta helmugaratzen azkarrena Xabier Lete Biain izan zen (1:51:52). Oñatiarraren nagusitasuna erabatekoa izan zen, ia sei minutu atera baitzizkion Jon Vegas Lopez de Uralde aguraindarrari (1:57:24). Ioar Tabar Clemente iruindarrak osatu zuen podiuma (1:58:28). Lehen sakandarra Ioseba Iza Arretxe arbizuarra izan zen, 30. postuan (2:20:14).

Emakumezkoetan Sara Peña Lizarralde oriotarra gailendu zen (2:14:35). Kasu honetan ere Peñak guztiz dominatu zuen proba, ia 14 minutu atera baitzizkion Garazi Artola Balda zumaiarra-

Sakandarrak Tritoiengan

Tritoiena Mendi Lasterketa (20,6 km)

• Gizonak

1. Xabier Lete	1:51:52
30. Ioseba Iza	2:20:14
34. Oscar G. De Andoin	2:27:43
35. Kepa Gordo	2:27:44
38. Jose A. Salgado	2:28:33
51. Ion Igoa	2:37:37
61. Iban Martin	2:54:06
66. Fco. Javier Moreno	3:02:12
70. Raul Lage	3:13:16
71. Ioni Araña	3:15:07
77. Iker Zeberio	3:47:45
78. Ibon Ruiz de Egiño	3:47:45

• Emakumeak

1. Sara Peña	2:14:35
--------------	---------

ri (2:28:58). Nuria Mendibi Armentariz orkoiendarrak osatu zuen podiuma (2:41:47).

Guztira 78 korrikalariek osatu zuten proba, sei emakumek tartean. Bukaeran, kanpinean bildutakoen txalo zaparradak eta auzate ederra zituzten zain. Sari emate ekitaldian korrikalariek ibilbidearen edertasuna nabarmendu zuten. Izan ere, Beriainek beti erakartzen du.



Lehen sakandarra, Ioseba Iza arbizuarra, helmugara heltzen. MIREN ARREGI



Sara Peñak irabazi zuen emakumezkoen lasterketa. MIREN ARREGI

Ez dute Goteborg erraz ahaztuko

FUTBOLA Etxarri Aranatz haurren mailako bi futbol taldeek Gothia Cup futbol torneo ezagunean parte hartu zuten uztailean, beste 1.601 talderekin batera. Gazteendako "esperientzia ahaztezina" izan dela diote Asier Campos eta Aitor Azpiazu entrenatzaileek

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Uztailearen 15ean Etxarri Aranatzko Kirol Elkarteko haurren mailako bi futbol taldeetako jokalariek, 13 urtekoak eta 14 urtekoak, hegazkina hartu zuten. Asier Camposek, Aitor Azpiazuk, Mikel Zelaia eta Oihan Mariñelarenak izan zuten 30 futbolari gazteen ardura. Alemanian eskala egin eta gero, Goteborgera (Suedia) iritsi ziren, Gothia Cup nazioarteko futbol torneo ezagunean parte hartzeko. Futbolari etxarriarrendako Suediako ahaztuko ez duten esperientzia izan da.

Proposamen bitxia

Etxarri Aranatz Kirol Elkartek ilbeltzean izan zuen Goteborgeko nazioarteko futbol torneoan parte hartzeko proposamena. "San Donato futbol zelaian entrenatzen ari ginela, gizon bat agertu zen futbol koordinatzaileaz galdezka. Etxarri Aranatz Kirol Elkartean futbol koordinatzailearen figura hori ez zegoela erantzun nion; berak ea entrenamenduen ondoren ea berekin hitz egin nezakeen eskatu zidan. Lanak bukatuta, Suediako Goteborgeko Gothia Cup futbol torneoan parte hartzeko aukera plazaratu eta bertan aritzea proposatu zigun, eta duela 20 urte baino gehiago Etxarri Aranatzko futbol talde batek Goteborgeko torneoan parte hartu zuela ekarri zuen gogora. Nik esan nion gurasoekin eta juntakoekin hitz egingo nuela, eta erabakia guztien artean hartuko genuela. Gizon hori donostierra da, eta Goteborg, Parisen eta Italian jokatzen diren nazioarteko futbol torneoetan aritu nahi duten taldeak lotzen ditu espainiar estatuan. Etxarri taldeko gurasoek proposamena oso ongi har-

tu zuten, eta Goteborgeko torneoan aritzera animatu ginen" laburbildu du Etxarri Aranatz haurren mailako futbol entrenatzaile Asier Camposek.

Goteborgeko Gothia Cup nazioarteko futbol torneoak sona handia du. Aurten uztailearen 18tik 23ra jokatu zen, eta zenbaki erraldoiak mugitu zituen: 59 herrialdeetako 1.603 taldek parte hartu zuten torneoan, eta guztira 4.131 partida jokatu ziren. Tartean Etxarri Aranatzko haurren mailako bi taldeak zeuden, 13 urteko taldea eta 14 urtekoa. "Madrilgo klub bateko zenbait talde, Burgoskoak, Malagakoak... Espainiar estatutik bederatzitik talde zeudela uste dut" gaineratu du Camposek.

Bidaia lotu

Goteborgera joateko erabakia hartuta, baliabideak bilatzen hasi ziren. "Batetik, pertsonako 350 euro ordaindu beharra zegoen torneoan izena emateko eta Goteborgeko egonaldirako. Bertako eskola batean genuen lo egiteko egoitza, eta uztailearen 18tik 23ra bitarteko gosari, bazkari, afari eta otorduak. Baita ere hirian mugitzeko garraioa -tranbia, autobusak eta beste-. Eta horri bidaia gehitu behar zitzaion. Goteborgeko bidaia merkeena uztailearen 15ean abiatzen zena zen, Alemanian eskala egiten zuena. Eta hori hautatu genuen. Guztira, 700 euro pasatxo ziren partaide bakoitzeko" azaldu du Aitor Azpiazuk.

"GOTHIA CUP TORNEO IZUGARRIA DA; MAILA HORRETAKO HANDIENA DELA DIOTE" AITOR AZPIAZU

Horregatik, dirua lortzeko zenbait ekimen egin zituzten. Etxarri Aranatzko gaztetxearen urteurrenako ospakizun asteburuan txosna jarri zuten, eta ikasurte bukaeran bi futbol torneo antolatu zituzten Etxarri Aranatz. Batean haurren mailako Sakanako futbol taldeek parte hartu zuten, Etxarri Aranatzek, Altsasuk eta Lakuntzako Lagun Arteak, eta beste torneoan Osasuna, Beasain eta Oberena taldeko haurren mailako taldeak lehiatu ziren. "Lortutako dirua laguntza handikoa izan zen. Jokalariendako jertseak egin ginituen, Goteborgeko jolas-parkerako sarrerak erosi, lehendabiziko bi eguneko otorduak ordaindu eta bestelako gastuak. Zertxobait soberan geratu zaigu" gaineratu du Azpiazuk.

Torneo erraldoia

Goteborgera uztailearen 15ean iritsi ziren, torneo hasi baino bi egun lehenago. Zegokien egoitza zain zuten, baina lehendabiziko bi egunetako otorduak eurek antolatu behar izan zituzten. 30 mutil batetik bestera mugiaraztea ez zen lan erraza izan, baina Asier Campos, Aitor Azpiazu, Mikel Zelaia eta Oihan Mariñelarena moldatu ziren.

Uztailearen 18an hasi zen futbol torneo erraldoia. "Torneo izugarria da. Beraiek diote maila horretan antolatzen den mundu mailako torneo handiena dela. 10 urtetik 18 urte bitarteko txapelketa da, kategoriak jokatzen dena, nesken eta mutilen mailan. Aurten 1.603 taldek jokatzen genuen. Goteborgek ia 600.000 biztanle ditu, eta halako tamainako torneo bat hartzeko azpiegitura nahikoa, egoitza mordoa zegoen" aipatu du Azpiazuk. "Gure kategorian, 13 urteko haurren mailan,



Etxarri Aranatz haurren mailako bi futbol taldeko jokalariek Goteborgeko portuan. Gothia Cup futbol

uste dut 160 talde inguru ginela" gaineratu du Camposek. Partidak Goteborgeko zelai ezberdinetan jokatu zituzten.

Antolaketari dagokionez, kategorian bakoitzean taldeak lau taldeko multzoetan banatu zituzten. Hasieran multzoko ligaxka jokatu zen, eta bi talde hoberenek aurrera egin zuten. Ondorengo ligaxkako kanporaketak zuzenak ziren eta soilik irabazleek egiten zuten aurrera, uztailearen 23an jokatu ziren finalera heldu arte. Etxarri Aranatzko bi taldeek hasierako multzoko ligaxkan aurrera egitea lortu zuten.

"POZIK GAUDE EGINDAKO LANAREKIN. MAILA ONA EMAN GENUEN" ASIER CAMPOS

Ligaxka gaindituta, pozik

13 urteko haurren mailako Etxarri taldeburu gainditu zuen multzoko lehen ligaxka. "Lehen partida Járla talde suediarren kontra jokatu genuen eta 6 eta 1 irabazi genuen; bigarren partida Prep Schools Lion Purple ingeles kontrako izan zen eta 1 eta 2 irabazi genuen eta hirugarren partida izan zen estuena, baina bana berdindu genuen BK Häcken talde suediarren kontra. Taldeburu gisa aurrera egin genuen txapelketan, eta ondorengo ligaxkan Karbener talde alemaniarra izan genuen lehen arerioa. Tamalez, 3 eta 5 galdu genuen eta torneotik kanpo geratu ginen" azaldu du Asier Campos entrenatzaileak.

14 urteko haurren mailako Etxarri lehen fasea bi partida irabazita eta bat galduta gainditu zuten. "Suediako Husie taldea-



ol torneoan aritzeaz gain, hiria ezagutzeko aukera izan zuten. UTZITAKOIA

ri 1 eta 0 irabazi genion, Collège St. Justin Levallois talde frantziarrari 0 eta 2, baina IFK Uddevalia talde suediar indartsuaren kontra 4 eta 1 galdu genuen. Oso talde potentea zen" dio Aitor Azpiatzuk. Hurrengo fasean Suediako Qviding FIF 2 taldearen kontra berdindu egin zuen Etxarri, baina penaltietan galdu eta gero torneoari agur esan behar izan zioten.

Hala ere, etxarriarrak pozik daude egindako lanarekin. "Herri txiki batekoak izanda, errespetu handiz joan ginen torneora, beldur pixka batekin, egia esan. Eta harriritu gelditu ginen maila ona eman genuelako. Talde oso potenteak zeuden, baina baita gurea baino maila baxuagoa zutenak ere. Denetatik zegoen. Ildo honetan, Goteborgeko torneo oso aproposa iruditu zitzaigun, ez delako oso elitista eta

talde xumeei lehiakorrek izateko aukera ematen dielako. Guri talde oso potente bat egokitu zitzaigun, IFK Uddevalia talde suediarra, baina beste taldeekin oso paretsu ibili ginen. Maila eman genuen" dio Azpiatzuk. Iritzi berekoa da Campos. "Gure multzoan oso paretsu ibili ginen. Járla talde suediarren kontra izan ezik, horiei erraz irabazi baikenien. Baina gainontzeko partidak oso parekatuak izan ziren. Agian beste multzoetan talde hobeak zeuden, baina gurean gehienak antzekoak ziren" gaineratu du.

"HARRITUTA GERATU GINEN GOTEBORGEN ZEGOEN GIROAREKIN. BIZI-BIZI ZEGOEN" AITOR AZPIAZU

Turismoa eta lagun mexikarrak
Torneoan aritzeaz eta futbolaz gozatzearaz gain, Goteborg ezagutzeko aukera izan zuten gazte etxarriarrek. Bertako jolas-parke erraldoira joan ziren eta Goteborgek inguruan dituen iriak ikusi zituzten, besteak beste. Horretaz gain, azken egunean jokatu ziren zenbait final ikusi zituzten, arratsaldeko itzulerako hegaldia hartu baino lehen. Halaber, beste herrialdeetako lagunak egin zituzten etxarriarrek, eta hamaika esperientzia bizi. "Beraiendako esperientzia oso polita izan da. Egoitzan hainbat herrialdeetako taldeak zeuden, eta mexikarrek oso harreman ona egin zuten. Oso jatorrak ziren. Hasieran nesken taldeko mexikarrek egin zuten harremana, baina gero mutilekin. Egun osoa zeuden elkarrekin" dio Azpiatzuk.



Taldeetako bat atseden hartzen. Goian, Asier Campos eta Mikel Zelaia. UTZITAKOIA

Toki guztietakoak

Izan ere, mundu guztiko jokalarriak biltzen dira Goteborgeko Gothia Cup futbol torneoan. Europarrez gain "Brasil, Etiopia, Guatemala, Uzbekistan, Hegoafrika... denetarik. Hegoafrikako nesken talde bat etortzen zait burura, guztiek batera kantatzen zuten. Bitxia zen. Mexikarrak oso jatorrak ziren, bere txanoarekin handik hona... bitxia zen" diote.

Gozamen hutsa

Goteborgeko "esperientzia ahaztezina" izan da Etxarriko futbolariendako. "Asko gozatu dute, eta guretako hori izan da pozgarriena" diote. Asier Camposek, Aitor Azpiatzuk, Mikel Zelaia eta Oihan Mariñelarenak ere ongi pasatu dute, baina 30 mutilen ardurak badu bere zama. "Lehendabiziko bi egunetan ez genuen jangelarik eta gosaltzeko eta bazkaltzeko 34 pertsonendako tokia bilatzea eromena izan zen, baita hirien barna mugitzea ere, jende asko ginelako" diote. Horri gaztetxoek pasadizoak gaineratu behar zaizkio. "Gauetan beste taldeko lagunekin elkartu eta zarata ateratzen zutela, korridorean baloiarekin jolasten ari zirela eta ezin zela... gazteen txikikeriak, aparteko ezer ez, baina, badakizu, ardura hori" dio irribarrez Camposek.

"LANA ETA ARDURA DA, BAINA EUREN ALAITASUNA IKUSTEA SEKULAKOA DA" ASIER CAMPOS

Goteborg bizi-bizi

Aste batean, emozio asko. "Pentsa, aste osoan handik hona gelditu gabe ibili ginen. Nagusiek soilik bigarren ostiralean hartu genuen tarte bat taberna batera pote bat hartzera joateko. Atera kontuak nola ibili ginen! dio irribarrez Camposek. "Bai, eta harriritu geratu ginen Goteborg zegoen giroarekin. Uste genuen denak etxean sartuta egongo zirela, ez zela girorik egongo, eta ez dakit uda zelako edo txapelketa horrek giro berezia sortzen duelako, kontua da justu kontrakoa izan zela: sekulako bizia zegoen kalean, jende mordo, tabernak eta jatetxeak beteta...ez genuen espero" nabarmendu du Azpiatzuk. "Gainera, egun horretan Iron Maiden taldearen kontzertua zegoen gertu eta giroan nabaritzen zen" gogoratu du Camposek.

Taldeko entrenatzaile izateaz gain, gurasoak dira Campos eta Azpiatzuk, eta euren semeek esperientzia hori bizi izatea oso berezia izan da eurenentzat. "Beste behin halako bidaiarik edo ekimenik egitea erabakitzen bada, gustura joango naiz, nahiz eta guretako lana eta ardura izan. Oso polita izan delako gure semeek eta euren taldekide guztiek bikain pasatu dutela ikustea. Eurenentzat esperientzia ahaztezina izan da, eta euren alaitasuna ikustea sekulakoa izan da guretako" dio Camposek. Eta ez da gutxiagorako.

Oporrak pasata, 2022/2023 futbol denboraldian murgilduko dira gazte etxarriarrak, eta denboraldiaren gorpil zoroa martxan jarriko da berriz.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 3

ALTSASU. Altsasuko Mendigoizale taldearen mendi irteera.

Linza haraneko Txamantxoa mendira ibilbidea eginen dute. Autobusa dohainik da. Josefina Arregi klinikarekin elkarlanean antolatutako irteera da. 07:00etan, autobus geltokian.

ALTSASU Ospa! Eguna.

12:00 Hitzaldia: Poliziaren eredu eztabaidagai, lortia kultur gunean.
14:30 Bazkaria, lortia plazan.
18:30 Manifestazioa: *Poliziarik ez! Langileon aurkako errepresioa gelditu*, Foru plazatik.
22:00 Kontzertuak: Habemus Papam eta Katarisia taldeak.

ALTSASU XXI. Ezin zailagoa Nafarroako zirku jaialdia.

lortia zabalgunean
17:00-20:00 Bambolea konpainiaren Circus Feria ikuskizuna.
20:00-20:45 Berdinki Zirko konpainiaren *Mikra* ikuskizuna.

ALTSASU LI. Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketaren finalerdiak.

Mistoa: Lanza (M) - Arrastia (F) / Bertiz (F) - Vicente (M)
Elitea: Fernández - Loza (Errioxa) / Igoa - Apezetxea (Nafarroa)
22:00etan, Burunda frontoian.

IGANDEA 4

OLAZTI Omenaldia.

Memoria etorkizuna ere bada ekitaldia. Arbuzuko Udalak antolatuta. 12:30, Otsaportillon.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 5

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 6

URDIAN Bakea eta Bizikidetzak lantzen duten liburutegiak**programa.**

Mugez harago tailerra. Breakout edukatiboa migrazioaren eta ingurugiroaren inguruan. 14 urtetik gorako gazteei bideratuta. 11:30ean, liburutegian.

OSTEGUNA 8

ALTSASU Euskalduntzeko eta Euskaraldiaren etorrera prestatzeko tailerra.

17:30etik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.

OSTIRALA 9

ALTSASU Euskalduntzeko eta Euskaraldiaren etorrera prestatzeko tailerra.

11:00etatik 13:00etara, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Kultur 2022.

Jarabe de Pau taldearen kontzertua. 20:00etan, Foru plazan.

ETXARRI ARANATZ Kultur 2022.

Kuttuna taldearen kontzertua. 20:30ean, Foru plazan.

ESKELA

Nati Ayestaran Goñi

Gure ondotik joan zara, baina zure artista arima beti egongo da gure bihotzetan.

Zure betiko kuadrilla



JAIOTZAK

- Lucia Jimenez Abadiano, abuztuaren 20an Arbizun
- Maren Galarza Azpilikueta, uztailaren 22an Urdiainen
- Auritz Agirre Lizarraga, uztailaren 28an Etxarri Aranatzan
- Uxia Barcia Agirre, abuztuaren 1ean Iturmendin
- Araitz Medina Galartza, abuztuaren 27an Iturmendin

HERIOTZAK

- Soledad Alsua Urkiola, abuztuaren 4an Urdiainen
- Benita Etxeberria Lizarraga, abuztuaren 4an Dorraon
- Esteban Erdozia Aiestaran, abuztuaren 19an Bakaikun
- Saturnina Galarza Garmendia, abuztuaren 20an Urdiainen
- Luis Martinez Calleja, abuztuaren 20an Altsasun
- Jairo Azpilikueta Martinez, abuztuaren 25ean Altsasun
- Nati Ayestaran Goñi, abuztuaren 26an Etxarri Aranatzan
- Casimiro Lazkoz Razkin, abuztuaren 29an Lizarragabengoa

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ARBIZU Lur azpian. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan erakusketa. Irailaren 1etik 8ra. Astez 17:00etatik 20:00etara, larunbatean 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Udaletxeko batzar aretoan.



ALTSASU Altsasuko Festetako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. Irailaren 1etik 11ra. lortia kultur gunearen erakusketa gelan.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK**ALOKATU**

Bikote bat bi txakurrekin bizitzeko etxe baten bila: Sakanan (Arbizu inguruan bada hobe) alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabiltza, gehienez 400 euro ordaindu ditzakegu orain, denborekin erosteko aukera nahiko gure. Deitu 699 173 735 / 696 629 605 tfoetara, milesker.

IKASTAROA

Lakuntzan Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroak: irailaren 19tik 30era izango dira, Kultur Etxean: enplegu eskatzaileei zuzendutako goizeko 9:15tik 13:15ra. Publiko guztientzat ikastaro bat 15:00etatik 17:00etara eta bestea 17:00etatik 19:00etara. Informazioa eta izen-ematea 948 576 015 - 948 012 012 tfoetara edota info@lakuntza.eus - SNEcompetenciasdigitales@nasertic.es helbidean.

les@nasertic.es helbide elektroniketan.

Altsasun geure burua euskalduntzeko lan-tegia: Estres linguistikoa txikituz, ahalduzko eta Euskaraldiaren etorrera prestatzeko tailerra. Altsasuko kuadrillei zuzenduta dago, baina, interesa duen edozein altsasuarrek har dezake parte. Irailaren 8an 17:30etik 19:30era eta irailaren 9an 11:00etatik 13:00etara, 4 ordu guztira, Gure Etxea eraikinean. Doakoa da, izen ematea irailaren 5a baino lehen altsasuneuskarak@gmail.com helbidean.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egile Berrintzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahal du modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izan behar dute eta euskaraz idatziak izan behar dute, jatorrizkoak eta argi-

taratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Ariel letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

OHARRAK

Irurtzango musika eskolan izena emateko bigarren epea zabalik: gaur, irailaren 2an eta 5ean, 16:30etik 20:00etara eman daiteke izena musika eskolan bertan edo matrikulamusiakaeskola@yahoo.com emailera idatziz.

Nekazaritzako ibilgailuen inspektzio teknikoak iraillean egingo dira: Ihabarren 5ean, 9:30tik 14:30ra, Uharte Arakilen 6ean, 7an eta 8an 10:00etatik 14:30ra, Arbizun 9an 10:00etatik 14:30ra, Lizarragan 12an 10:00etatik 14:30ra, Unanun 13an 10:00etatik 14:30ra, Etxarri Aranatzan 14an eta 15an 10:00etatik 14:30ra, Iturmendin 16an eta 19an 10:00etatik 14:30ra, Altsasun 20ean eta 21ean 10:00etatik 14:30ra, Olaztin 22an 10:00etatik 14:30ra eta Ziordian 23an 10:00etatik 14:30ra.

Arakilen ikasturte eskola garraioan izen ematea: 2022-2023 ikasturtean Derrigorrezko hezkuntza ondoren ikasten jarraitzen dutenek, zerbitzu hau erabilteko interesa izanez gero, irailaren 10a baino lehen izena eman behar dute Arakilgo Udaletxean inprimakia betez.

Irurtzunen 0-3 haur eskoletarako dirulaguntza deialdia: irailaren 30 bitartean, haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea irekita egongo da.

Etxarri Aranatzan 2022ko 1. Seihilabeteko uraren erreziboak: Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna irailaren 21a izango da. Ordaintzeko borondatezko epea irailaren 28an bukatuko da.

Altsasun, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko 2022ko zerga: borondatez ordaintzeko epea irailaren 24an bukatuko da helbideratu gabeko ordainagiriak La Caixako edozein banku bulegotan ordain daitezke ordainagiria aurkeztuta.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

ESKELA

Nati Aiestaran Goñi

Zuu bizipoza gukin do.
Ez zettugu sekula
ahaztuko.

Zu kintuek



ESKELA

Nati Ayestaran Goñi

2022ko Abuztuaren 26an hil zen 50 urte zituela



Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko

Maite zeittugu izeba

Ainhoa, Oihana, Iñaki, Maddi eta Lierni

Etxarri Aranatz



ESKELA

Jairo Azpilikueta Martinez

Milesker independentzia eta sozialismoaren
aldeko borrokan jarritako aleagatik

Ez zaitugu inoiz ahaztuko



ESKELA

Jairo Azpilikueta Martinez

Jairo, zauden tokian zaudela denok
berriz elkartuko gara. Bitartean,
ondo izan eta gozatu bidez!!!
Ikusi arte lagun.

Zure kuadrila



ESKELA

Bat eta bakarra,
Jairolo!

Maitasunez,
Aser eta Saioa



ESKELA

Casimiro Lazkoz Razkin

Joan zara lurretik,
baina ez gogotik, ez bihotzetik

Zure familia



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 🐦 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es



Bambolea konpainiaren 'Circus feria' ikuskizuna izanen da Altsasun. UTZITAKOIA

21. urtez zirku jaialdia izanen da Altsasun

'Ezin zailagoa' festibala izanen da bihar, iralax 3, larunbata, lortia kultur gunean. Bi proposamen eskainiko dituzte: Bambolea konpainiaren 'Circus Feria' ikuskizuna eta Berdinki Zikoa konpainiaren 'Mikra' ikuskizuna.

ALTSASU

Ezin zailagoa zirku jaialdia duela 21 urte sortu zuten Nafarroako bost herrik. Ideia nagusia herri guztietan programa bera egitea zen; arte eszenikoen konpainiak herrietatik bira bat egitea, alegia. Herri horietan udan kaleko programazioa egitea pentsatu zuten, eta kalean egiteko ikuskizun egokiena

zirkua da. Hortaz, kaleak girotzeko eta zirkua hedatzeko helburuarekin zirku jaialdia sortu zuten. Gaur egun, Tuteran, Uhartan, Vianan, Altsasun eta San Adrianen egiten da *Ezin zailagoa* jaialdia, eta urtero ikus-entzule gehiago hartzen du jaialdiak. Emanaldiak kalean egiten direnez, pandemiako urteetan ere aurrera egin du

festibalak. Tradiziozkoa bihurtu da. Altsasuren kasuan, festen aurreko ekimenen artean dago. Altsasura irailaren 3an, larunbatean, iritsiko da zirku jaialdia. Aurretik Tuteran eta Uhartan izan da festibala, eta gaur, irailak 2, ostirala, Vianan izanen da. Igandean, irailaren 4an, amaituko da San Adrianen. Lortia zabalgunean Bambolea

Matxura batek isildu du Beleixe Irratia

Irratiaren emisioa berriz martxan jartzeko konponketa lanak egiten ari da teknikaria.

SAKANA

Hainbat entzule izan dira agorrilean eta irail hasieran Beleixe Irratiaren isiltasunaz galdetu dutenak. Guaixe Fundazioak kudeatzen duen euskarazko irrati agorriaren

lehen astetik mutu dago matxura bat izan delako. Beleixe Irratia FM 107,3 frekuentzian eta *guaixe.eus* webgunearen bidez entzun daiteke, baina asteotan matxuraren eraginez ez da FM bidez entzun ahal

izan. Pixkanaka emisioa itzultzen ari da.

Dagoeneko teknikaria Beleixe Irratiaren emisioa onbideratzeko lanean ari da, eta laster Beleixe Irratia betiko moduan entzuteko aukera izanen da. Guaixe Fundazioak eskerrak eman nahi dizkie emisio faltaren zergatiaz galdezka etorritako guztiei.

Entzule guztiengatik emanaldiak lehenbailehen berreskuratzeko pausoak ematen hasiak dira.

2022ko 'Ezin zailagoa' jaialdia

'Circus Feria', Bambolea

17:30-20:00, lortia zabalgunean Bi ordutan zehar, lau etxolaz osatutako zirku feriaz gozatzeko aukera izango dugu; bertan uztaiak botiletan sartzen, puxiak leherarazten eta ilusio optiko eta erretenekin jolasteko aukera izango dugu. Clown, malabarrak, Hula Hoop eta Cyr gurrpila edo masta txinatarrak izango duten 30 minutuko zirku ikuskizunarekin itxikok da azoka.

'Mikra', Berdinki Zirko

20:00-20:45, lortia zabalgunean Mikra generoei egozten zaizkion etiketak ikusarazten dituen pieza bat da, hizkuntza eszeniko gisa zirkuko hainbat diziplina akrobatiko erabiliz, eta agerian utziz askotan ez garela dirudiena. Iraia Elias Muniain eta Amancay Gaztañaga Sagarzazu dira zuzendariak eta Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta dira eszenan agertzen diren artistak.



Berdinki Zikoren 'Mikra'. UTZITAKOIA

eta Berdinki konpainiak ariko dira, 17:00etatik aurrera.

Zirku konpainiendako jaialdi garrantzitsua da *Ezin zailagoa*, zirku karabana bihurtzen delako. Bost egunetan bost *bolo* egiteko aurrera dute. Gainera, haien artean elkar ezagutzen dute, ia elkarrekin bizi direlako. Jaialdian goi mailako konpainiek parte hartzen dute. Zirku garai-idea eta ideia berriak aurkezten dituzte, eta erreferentziatzko zita bihurtu da. Bambolea konpainiak Circus Feria ikuskizuna aurkeztuko du, 17:00etatik 20:00etara. Ikuskizun bat baino gehiago ere bada, bi ordutan zehar lau etxolaz ostaturako zirku feria bat sortuko dutelako lortia zabalgunean. Familiei bideratutako ekimena da. Berdinki konpainiak Mikra ikuskizuna eskainiko du. Generoari egozten zaizkion etiketak ikusarazten

dituen pieza da, eta adin guztietarako emanaldia da.

Zirkua

Arte eszenikoen diziplinak uzartzen dituen zirkuaren aldeko apustua egiten dute *Ezin zailagoa* jaialdian. Beraz, zirku diziplinetako akrobaziak eta malabarismoak, dantza edota musika uzartzen dituzte konpainiek. Jaialdian parte hartzen duten taldeak Pirinioetako Zirku proiektuan aukeratzen dituzte, eta 200 bat konpainiaren lanak ikusten dituzte hautaketa egiteko.

**KALEKO IKUSKIZUNAK
ESKAINITZEKO BOST
HERRI BATU ZIREN;
ZIRKU JAIALDIA
SORTU ZUTEN**



Beleixe Irratiaren soinu mahaia.

Denboraren igarotzeaz

Akira Yoshida iruindarrak Etxarri Aranazko kultur etxean arte erresidentzia egin du abuztuan. 'Together to get there' proiektuaren lehenengo urratsak eman ditu, eta udazkenean aurkeztu nahi du. Dantzariak break-a eta garaikidea uztartzen ditu

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Haurra zenean, Akira Yoshida Otsagabian, Beran eta beste hainbat herri "txikitan" bizi izan zen, ama irakaslea zelako, eta askotan lekualdatzen zirelako. "Herri txiki batean nagoenean, badago zerbait bake handia ematen didana. Badago sentazio bat kontzentratuago lan egitera eramaten nauena". Etxarri Aranatzen hilabeteko arte erresidentzia egin du kultur etxean, eta *Together to get there* lanaren lehenengo urratsak eman ditu. Abuztuaren amaieran orain arte sortutakoaren erakustaldia egin zuen, baita bi ikastaro eskaini ere. Lana amaituta, herriko jate txeko batera joaten zen eta bertako "gertuko harremana" miresten zuen. "Lasaitasuna" nabaritzen zela dio.

Break dance eta dantza garaikidea estiloak uztartzen ditu Akira Yoshida dantzari iruindarrak. Break dance dantzatzen hasi zen lagunekin, "dantzaren plazerarengatik". 23 urte zituela, dantza "serioago" hartzen hasi zen, eta beste gauza batzuk ikasteko "irekiago" zegoela azaldu du, "eta, bat-batean, lagun batek dantza garaikideko pare bat urrats irakatsi zizkidan, eta unibertso bat ireki zitzaidan". Dantza garaikidea ikertzen hasi zen, eta 24 urterekin Austriara dantza ikasketak egitera joan zen. "Orduetik, dena nahasten nabil. Break danceak eta garaikideak elkarrekin aritzeko potentzia handia daukate. Oso dantza irekiak dira; hortaz, askatasun handia dute bien artean elkar elikatzeke". Dantzariak uste du bi estilo horiek uztartzeak karrera amaitzean lana izaten lagundu diola. "Geroz eta jende gehiago dago hori egiten, baina oraindik lengoia oso berritzaile



Akira Yoshida dantzaria. RAFAEL ARENAS

lea izaten jarraitzen du, eta, beraz, oso deigarria da".

Bi estiloak elkarrekin ongi aritzen dira, baina, kanpotik ikusita, oso kontrakoak dirudite. "Garaikidea ikasten dutenak askoz akademikoagoak dira. Ballet, modernoa eta garaikidea, edo zuzenean garaikidea, ikasten dira. Normalean, horretan lan egiteko helburuarekin egiten diren estiloak dira. Oso jende gutxi lan egiten du break-aren munduan. Lagunekin elkartzea eta entrenatzea da". Meditazio bat bezalakoa dela esan du Yoshidak. "Espazio bat da, jolas bat, non bakoitza bere emozioekin eta gorputzarekin gustura gelditzen den".

Erresidentzia

Nafarroako Gobernuaren DNA Dantza Garaikidea sustatzeko programaren barruan egin du Akira Yoshida dantzariak erresidentzia Etxarri Aranazko kultur etxean. "Ongi egon da, baina egon dira gertatu diren gauza batzuk Etxarri Aranatzekin zerikusirik izan ez dutenak". Prestatu behar zuen lana bikote-lana zen, baina herrira iritsi eta gutxira, lan-kideak esan zion ezin zuela jarraitu. "Egon dira zenbait aldaketa, baina horiek Nafarroako Gobernuarekin adostu behar izan ditut". Beste lagun bat bilatu behar izan zuen, eta lagun hori Hego Korean dago. "Entseguak online egiten genituen, eta orain urrian hasiko gara elkarrekin entseatzen". Udazkenean lana amaitu behar du, eta Etxarri Aranatzen aurkeztu nahi luke.

Hilabeteen zehar sortutakoarekin erakustaldia egin zuen Etxarri Aranazko kultur etxean, abuztu bukaeran, eta bi ikastaro ere eskaini zituen Yoshidak. "Lehenengo egunean jende gutxi gerturatu zen, baina bigarren egunean egondako horiek lagunak ekarri zituzten, eta jende gehiago zegoen. Aurretik esan zidaten nahiz eta sare sozialetan eta abarretan iragarri, gehienbat ahoz ahokoak zuela garrantzia".

Etxarri Aranatzen *Together to get there* (Elkarrekin bertan egiteko) ikuskizunaren lehenengo urratsak sortu ditu. "Bere garaian hitz horiek idatzi nituen pentsatzen *together* hitza (elkarrekin) hortik zetorrela. Gerora begiratu nuen, eta uste dut zerikusirik ez duela. Baina toki batera iris-

teko osotasun baten bidez iristen zarela bezala irudikatzen dut. Orain dantzan lan egiten dut, baina hori lagunekin eta familiarrekin lortu dut". Batura eta laguntza garrantzitsuak direla sinesten du dantzariak. "There horrek noraino iristen garen esan nahi du. Mugara iristea. Lehenengo bikotekidearekin nola iritsi ikusi nahi genuen. Bioi fisikalitatea gustatzen zait, eta ez etsitzea. Bukaeraino iristea, nahiz eta oso nekaturata egon". Lan hilabete honetan *there* hori transformatu dela azaldu du Yoshidak: "Aurrera egin leku batera iristeko, baina zertarako? Batzuetan aurrera egin nahi duzu, eta atzera egiten duzu. Gorputzarekin dena ematen duzu, baina, bat-batean, lesio bat izan dezakezu. Konturatu eta garatu nahi dugula beti, baina oso absurdoa dela".

Horren harira, dantzariak testu bat sortu du: "Txikia nintzela oso xumea zen dena, eta oso zoriontsu nintzen. Zoriontsu nintzen, eta ez nintzen konturatzeko. Otsagabian bizi nintzela oso zoriontsua nintzen. Mendira joaten nintzen, ibaira... Gutxiarekin bizitza beteta nuen. Orain heldua naizela, maite dudana daukat, baina asko bidaiatzea dakar lan horrek, hegazkin asko hartzea...". Pentsamendu hau ez da bakarrik norberarena, "gizarte osoarena" dela uste du: "Garatu nahi dugu, baina atzera begiratzen dugu eta ikusten dugu haurra izatea oparia zela". Hortik doa *Together to get there* lana.

Yoshidak erresidentzia orri txuri bat bezala hartu zuen. "Intuzioan sinesten dut, eta burutik pasatzen zaidan gutzia probatzen dut: mugimendu bat, materiala...". Kultur etxean zeuden zenbait elementu hartu zituen. Maleta bat ere eraman zuen, eta harekin jolasean aritu zen. Kontrakoetara jotzea gustatzen zaio ere, kontzeptu bat hartu eta kontrako ataritzea, eta gero hasierako kontzeptura itzultzea. "Horrela lan egiten dut, pixkanaka estruktura osatzen".

"ATZERA BEGIRATZEN DUGU ETA HAURRA IZATEA IZUGARRIA DELA PENTSATZEN DUGU"

"Aurtengoa ikaragarria izan da, desastrea"

Kirolarekin lotura duten jarduerengatik ezaguna den altsasuarrak badu zaletasun bat: erlezaintza. "Orduak, beroa... erleak gustatu behar zaizkizu". Lehorreak erleei ere eragin die

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Noiztik erlezain?

Aitak eta haren lagun batzuek erleak zituzten. Jakin-mina piztu zitzaidan, eta poliki-poliki hasi nintzen. Orain arte.

2 Zer behar da erlezaina izateko?

Natura gustatzea, zure herriaren ingurua, mendia, larrreak... Eta, jakina, erleak kokatzeko toki aproposa eduki behar da. Ez da erraza.

3 Non jartzen dira erlauntzak?

Ahal den tokian. Baina kokatzeko arauak badaude, neurriak, biderako distantziak eta abarrak. Hori errespetatzea nahiko erraza izaten da. Baina zailena leku apropos batean kokatzea da: oso eguzkitsua, babestua...

4 Erlauntza asko daukazazu?

Zaletasun bat izateko, gehiegi! 30 bat. Gazte-gaztea ez naiz. Momentu jakinetan eztiz betetako kutzak erle tokitik autoraino mugitu behar dira. Eta, hain justu, bero egiten duen garaian. Erlauntzak ezin dira zabaldu hotza egiten duenean.

5 Zer lan eskatzen dute erleek?

Betidanik egon dira naturan, baina Altsasan, mendian, gero eta gutxiago ikusten da, pixkakakan jaisten ari da. Zikloa udaberri hasieran hasten da, esnatzen direnean, lehendabiziko loreekin, esene loreekin (txikoria belar edo *Taraxacum officinale*) mugitzen direnean. Orduan hasi behar da beraien etxea handitzen edo behar duten tokia egokitzen. Uda garaian pixka bat lasaiagoa izaten da, bere erritmoa dutelako. Uda bukaeran ezti bilketa hasten da. Nik beste zeregin batzuk ditudanez, ez ditut ordu asko sartzen. Esaterako, ez ditut hartzen propoleoa edo polena.



Alfonso Nuñez Lezea, erlezaina.

6 Eztia atera ondoren, zer?

Etxean txokoa eta lanabesak prest ditut, eztia ateratzeko: zentrifugatzaila, ontzaila... Eztia atera eta poteetan sartzen dut. Urtearen arabera, 200 edo 300 kilo izaten ditut. Niretako, lagunei saltzeko... Hori bukatu ondoren, erleak negurako prestatu behar dira, eta hainbat gauza egin behar dira, esaterako, etxea txikitu, nahikoa eztia utzi negua pasa dezaten. Dezente behar dute, bestela, janaririk gabe, hil egiten dira. Beraz, behar dudana hartzen dut, eta behar dutena uzten diet. Nahiko ongi moldatzen naiz.

7 Aurtengoa uda berezia da: lehorrea, euri gutxi. Landareek ez dute lorerik eman. Nola moldatu dira zure erleak?

Aurtengoa ikaragarria izan da: zer lehorra! Zer-nolako berotasuna! Desastrea. Lore batzuk atera dira, baina euririk egin ez duenez,

berehala lehortu dira. Bero oso zakarra egiten baldin badu, erleek ez dute polena edo nektarra loretik oso erraz hartzen. Aurten haiendako janaria izanen dute, baina niretako gutxi izango da.

8 Urrutiago joan beharko dute lore bila?

Erleak erlauntzetik 2 kilometrotara mugitzen dira. Baina bero zakarra egiten badu, erlauntza barruan gelditzen dira, hegalak astintzen, barruko tenperatura jaisteko, esaterako. Edo ura hartzen. Baina lore ez dira ibiltzen, ezer egiterik ez dagoelako.

9 Tokatu zaizu jana ematea?

Hori, normalean, gertatzen zaigu udaberri hasieran. Batzuetan otsailean edo martxoan hasten da udaberria oso fuerte. Orduan erleak, naturarekin batera, hasten dira. Barruko aldean

behar pila dituzte, baina, bat-batean, eguraldia hozten da, gelditzen da, eta ez dute barrura janaririk sartzeko aukerarik. Desoreka sortzen da. Hori kontuan hartuta, batzuetan janari berezi bat eman behar zaie; ez da azukrea.

10 Hori gutxi ez, eta Asiako erlamina hemen dago.

Nahiko triste da erlatokira joatea eta Asiako erlaminak ikustea erleak harrapatzen, eta erleak, beldurtuta, erlauntzetik atera gabe, edo bueltatzean harrapatu eta hiltzea. Nahiko triste da. Nafarroako erlezainen elkartekoa naiz, eta albaitariak esan zigun bero handiekin Asiako erlaminak ez direla oso eroso sentitzen. Uda honekin gutxitzen ari dira.

11 Zein tokitan jartzen dituzte kabiak?

Negua hasi aurretik erreginak kabia nagusitik atera, krisalida antza hartu, eta zuloetan estaltzen dira. Udaberrian, beroa hasi bezain pronto, atera eta lehendabiziko kabia sortzen dute. Erregina horiek ez ugaltzeko, oso garrantzitsua da haiek harrapatzea. Handitzen hasten dira eta bigarren kabira joaten dira. Eta han hurrengo erreginak sortzen dira. Horregatik oso garrantzitsua da kabiak lastaila baino lehenago kentzea. Erleei eta intsektuei onura egiteko, kabien berri eman behar da. Marroi argiak dira, kartoia bezalakoak. Zuloetxo batzuk dituzte, eta hurbiletik ikusten da mugitzen direla. Oso-oso handiak izan daitezke.